

Emakumion Etxiak zabaldu ditu ateak

Oñati berdintasunetik eraikitzen
jarraitzeko funtsezko bitartekoa
izan nahi du

USAKOKO BIDEGORRIA PREST



Aurrerantzean modu
seguruan egin ahal
izango dugu herrigunetik
Usakorako joan-etorria

AHOZKO NARRATZAILEAK OÑATIN



Ekaina bukaeran ahozko
narratzaileen jardunaldiak
egingo dira Oñatin

Zabalik da, jada, EMAKUMION ETXIA



▲ Udaleko Berdintasun batzordeko kideak – Anik Zubizarreta, Izaro Elorza, batzordeko burua, Jone Arriolabengoa, teknikaria, eta Itziar Alonso– irekiera ekitaldian



◀ Jone Arrazola, Emakumion Etxeko langileetako bat –Irtati Garai da bestea–, eta prozesuan parte hartu duten Etxekideen izenean berba egin zuten hiru kideak: Aitziber Aranburuzabala, Nagore Marrero eta Nagore Altube

la sei urteko gogoeta prozesu sakon eta mamitsuaren, eta bi urtez luzatu diren obra eta egokitzapen lanen ondoren, maiatzaren 26an ireki zituen ateak Oñatiko Emakumion Etxiak, udal gobernu taldearen agintaldi honetako egitasmo nagusietako batek.

Udaleko Berdintasun Batzordeko ordezkari politiko eta teknikoek –Izaro Elorza, Anik Zubizarreta, Itziar Alonso eta Jone Arriolabengoa– eman zioten hasiera irekiera ekitaldiri, 'Eskilarapea', izenez bataiatu duten gunea goraino bete zuten herritarren aurrean. Egun "oso berezia" zela esanez hartu zuen hitza Izaro Elorza alkateak, Berdintasun batzordeko buru ere badenak. "Gaur ateak zabaltu dituen etxe honek aukera ezin hobea emango digu berdintasun politiketan sakontzeko, indarkeria matxistaren prebentzio, erreparazio eta arretan eragiteko, eta eraldaketa feminista sustatzeko".

Emakumion Etxia herritar guztiei irekia dagoen ekipamendu publikoa dela adierazi zuen Elorzak; "komunitatea egiten lagunduko digun espazioa da, feminista, interseksionala eta ahalduz zuzena, Oñati berdintasunetik eraikitzen jarraitzeko ezinbesteko tresna izango dena."

Emakumeen Etxiaren alde egindako apustuan berresten direla gaineratu zuen alkateak. "Argi geneukan prozesu parte hartzaile baten bitartez gorpuztu behar genuela etxea, ahalik eta adostasun zabalenak lortu eta oinarri sendo bat eraiki nahi genuelako. Ho-



Herritarrek goraino bete zuten Eskilarapea gunea. Amaiera ekitaldia borobiltzeko luntxa egon zen Emakumion Etxeko behebarraun

JONE ARRIOLABENGOA

Udaleko Berdintasun teknikaria

» Lan handia egin dugu guztion artean azken lau urteotan, eta lan handia egiten jarraituko dugu, elkarrekin; egon garenokin eta egongo direnekin

AITZIBER ARANBURUZABALA NAGORE MARRERO ETA NAGORE ALTUBE

EtxeKideak

» Orain etxe bat dugu, elkar ezagutzeko, elkarrekin egoteko, elkarrekin pentsatzeko, elkarrekin borrokatzeko... Bide bat dugu egiteko, herritarren eta Oñatiren eraldaketa feministarantz!

regatik, esan dezaket prozesuari denbora eta baliabideak eskaintzeko hartutako erabakia guztiz zuzena izan dela, mesede egin diola proiektuari, eta horri esker lortu dugun oinarri sendo baten gainean eraiki dela Etxia".

Parte hartze prozesuan 100dik gora herritar aritu direla azpimarratu zuen alkateak, eta bereziki eskertu nahi izan zien egindako lana. "Etxetik haratago, Udalean bertan, partaidetzan sakontzen jarraitzeko aukera eman digu; egiteko modu berriak arakatzera eta elkarlanerako bide berriak zabaltzera eraman gaitu prozesu honek, elkarriketa eta konfiantza oinarri hartuta".

"Erronka bat izan da orain artekoa, eta erronka handia izaten jarraituko du, bai Udalarentzat eta bai etxekideentzat ere", gaineratu zuen Elorzak. "Ikaragarri ikasten ari gara elkarren ondoan. Banaka batu gara prozesu honetara, bakoitza bere jardun eremutik, eta gutasun bat sortu dugu denbora guzti honetan, batu nahi duen orori irekita dagoen gutasun sendoa. Gaurko irekiera honekin urrats sendo bat eman dugu denon artean, beste urrats sendo askoren

abiapuntua izango dena".

Udaleko berdintasun teknikari Jone Arriolabengoak honaino ekarri gaituen ibilbidearen errepaso egin zuen. Ikaspenez betetako bidea izan dela esan zuen. "Lan handia egin dugu guztion artean azken urteotan, eta lan handia egiten jarraituko dugu, elkarrekin; egon garenokin eta egongo direnekin". Eskerrak eman zizkien prozesuan lagundu duten guztiei eta, bereziki, etxekideei.

ETXEKIDEEN AHOTSA

Parte hartze prozesuan zehar parte hartu duten etxekideen ize-nean Aitziber Aranburuzabalak, Nagore Marrero eta Nagore Altubek hartu zuten hitza jarraian. "Bidea ez da erraza izan, eta asko dugu oraindik egiteko", adierazi zuten. "Topatuko ditugu bidean erasoak, aurreiritziak eta etiketak; baina hemen ere, erresistentzia eta ahizpatasun sareak eraikitzen jarraituko dugu".

Elkarbizitzarako espazio bat eraiki nahi dutela esan zuten. "Elkarrekin egin nahi dugu bidea, ulertzen baitugu herritar guztiok izan behar dugula eraldaketa sozialaren parte. Bakoitzak bizi duen errealitatetik, bere zapalkuntza eta bere pribilegio, urratsa eman behar dugu jabetzeko, ahalduntzeko eta antolatzeko. Ni-tik Gu-rako saltoa emateko tokia da Etxia".

"Orain etxe bat dugu elkar ezagutzeko, elkarrekin egoteko, elkarrekin pentsatzeko, elkarrekin borrokatzeko eta izateko", amaitu zuten. "Bide bat dugu egiteko, herritarren eta Oñatiren eraldaketa feministarantz".

BISITA GIDATUAK

Irekiera ekitaldia amaitzeko luntxa egon zen etxeko Behebarruan, eta Etxiak eskaintzen dituen baliabide eta espazioak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Ildo horretan, Jone Arrazolak gogorarazi zuen hurrengo egunetan –ikusitako egitaraua 5. orrian– Etxia ezagutzeko bisita gidatuak egingo direla eta gonbitea luzatu zien herriko emakume guztiei etxea ezagutzera hurbil daitezen. •



IZARO ELORZA ARREGI
Alkatea eta udaleko Berdintasun batzordeko burua

"Emakumion Etxiak aukera emango digu berdintasun politiketan sakontzeko eta herria berdintasunetik eraikitzeko"

Emakumion Etxiak, ateak zabaldu berri ditu, eta, horrekin, hasiera eman diogu bizitza luze bati. Etxiak espazio bat eskaintzen digu berdintasun politiketan sakontzeko; orain arte leku propiorik izan gabe eskaini ditugun zerbitzuak indartu eta egonkortzeko, bai eta leku egokien faltan alde batera utzi behar izan ditugun proposamenak garatzeko ere. Emakumion etxiak indarkeria matxistaren prebentzio, erreparazio eta arretan eragiteko bide berri bat irekitzen digu, Azken finean, herria feminismotik eraikitzeko. Oñatin erreferentziatzeko izango den ekipamendu publiko bat diseinatu dugu; besteak beste, herritarrei irekia dena, elkarriketarako aukerak ematen dituen, feminista, komunitatea egiten lagunduko duena, ahalduntzailea... Gure herria, Oñati, berdintasunetik eraikitzen jarraitzeko ezinbesteko bitartekoa izango dena.

Ez da edozelako ekipamendu publikoa, ez. Eta ez da edonola eraiki. Urteak iraun dituen parte hartze prozesuaren emaitza da. Halaxe egitea izan zen apustua, jakinik, askotariko herrikideendako eta herriarendako ezinbesteko bitarteko dela Oñati berdintasunetik eraikitzen jarraitzeko. Ehundaka herritarrek hartu dute parte prozesuan.

Finean, halako prozesuak, azken emaitza bezain garrantzitsuak, edo are garrantzitsuagoak, dira. Esan dezaket Etxia eraikitzeko moduaren, eta, beraz, prozesuari denbora eta baliabideak eskaintzeko hartutako erabakia guztiz zuzena izan dela, mesede egin diola proiektuari. Horri esker, oinarri sendo baten gainean eraiki da Etxia.

Prozesuaren ekarpena, Etxetik harago doa, gainera. Udalean bertan, partaidetzan sakontzen jarraitzea, egiteko modu berriak arakatzera eta elkarlanerako bide berriak zabaltzera eraman gaitu egitasmoak. Parte-hartze prozesuan, erabakiak hartzeko modu berriak arakatu ditugu, beste proiektuetatik ikasi ahal izan dugu, harreman-sare berriak sortu ditugu. Eskerrik asko, beraz, berdintasun batzordekide, teknikari, etxekide eta prozesuan parte hartu duzuen guztioi. Eskerrik asko, feminismotik, urrats berriak eman ditzagun akuilu lanak egin izan eta egiten duzuen guztioi. Eskerrik asko, egitasmoa babestu duzuen guztioi, eta proiektuaren parte izatea erabaki duzuenoi. Bai eta etorriko zaretenoi ere, izan ere, bidearen hasieran besterik ez gaude.

Etxea jada zabalik da, gerturatzeko, sartzeko, hitz egiteko, entzuteko, parte hartzeko, edo, besterik gabe, egoteko, gonbita luzatzen dizuet guztioi.

EMAKUMION ETXIAZ JAKIN BEHARREKOAK

► NONDIK DATOR HAU GUZTIA?

2018ko Partaidetzazko Aurrekontuetan Emakumeen Etxea martxan jartzeko herri mailako diagnostikoa egitea eskatu zuten herritarrek. Udalak 2020an egin zuen diagnostikoa, 45 emakume elkarrizketatuta. Gehienek espazio propio baten beharra adierazi zuten, eta Udalak berak ere espazio egoki baten falta sumatzen zuen berdintasun arloko proiektuak eta zerbitzuak eskaintzen eta osatzen jarraitzeko. Hala, aukera ezberdinak aztertu ostean, Udalak Kale Zaharreko 13 zenbakidun eraikina erosi eta eraberritze lanak jarri zituen martxan 2022an. Aldi berean, herri mailako parte-hartze prozesua jarri zuen abian, herritar guztiei irekia, Emakumeen Etxea izango zenaren oinarri teorikoak, balioak, helburuak, espazioaren barne-banaketa eta funtzionamendu nahiz antolaketa eredu adostu eta finkatzeko. Hiru urteko prozesu mamitsu eta aberatsaren ostean, iaz lantaldeak eratu ziren Etxiaren gobernantza modua probatzen joateko.

► NORENTZAT DA ETXIA?

→ Herritar guztiei irekia dago. Edonor izan daiteke Etxiaren erabiltzaile, edozein delarik ere bere generoa, adina edo jatorria. Are gehiago, aniztasuna bilatuko du.

→ Gizonek ere erabili ahal izango dute Etxia, gizonentzat irekitako jardueretan edo beraiek antolatutako jardueretan, beti ere jarduera horiek bat baldin badatoz Etxiaren helburuekin.

→ Etxeko espazio eta baliabideak hirugarrenei lagutzeko aukera egongo da eta, beraz, herriko elkarte eta eragile ezberdinek erabili ahal izango dute Etxia bilerak egiteko, aurkezpenetarako edo jardueretarako, baldin eta jarduera horiek bat baldin badatoz Etxiaren xede, balio eta ikusmirarekin. Ekintzaren bat antolatu nahi baduzu, jarri harremanetan

► ZER ESKAINTZEN DU ETXIAK?

→ Emakumeen ahalduntze feminista eta saretzea sustatzen du Etxiak. Kezkak eta ondoezak partekatzeko espazio bat, autonomia eta konfiantza lantzeko, eta sareak sortzeko beste kide batzuekin.

→ Pentsamendua, tresnak, kideak eta sareak aurkituko dituzu Etxian.

→ Feminismoaren gaineko lanketa politikoa garatu nahi du Etxiak, ikusezina ikusgarri bihurtuz eta taldeen autonomia eta autoantolakuntza indartuz.

→ Ondo pasatzeko eta gozatzeko espazioak eta uneak ere eskaintzen ditu Emakumion Etxiak.

► ZER EGINGO DA EMAKUMION ETXIAN?

→ Udaleko Berdintasun sailak antolatzen duen Jabetze Eskolako hitzaldi, tailer, ikastaro, ikus-entzunezko eta bestelako ekitaldiak Emakumion Etxian egingo dira aurrerantzean. Etxekideek edota herriko beste eragile batzuek antolatutako ekintzak ere burutu ahal izango dira bertan, Etxiaren helburuekin bat baldin badatoz.

→ Emakumeei zuzenduta, Udalak eskaintzen dituen Aholkularitza Juridiko eta Aholkularitza Psikologiko zerbitzuak ere Emakumion Etxian eskainiko dira.

► ZER DA EMAKUMION ETXIA?

Emakumeek zuzendutako ekipamendu publiko eta komunitarioa da. Gizarte berdinzale eta justuago bat eraikitzeko erronkan eragitea du xede, eta lau printzipio nagusitan oinarritzen da:

- **feminista**: emakumeen eskubideen defentsa eta eraldaketa soziala ditu ardatz.
- **inteserkezionala**: generoagatik ez ezik, arraza, klase soziala, adina, hizkuntza, sexu orientazioa edota genero identitateagatik sortzen diren diskriminazioei ere erreparatzen die.
- **ahalduntzailea**: emakumeen ahalduntzean eragin nahi du hiru dimentsiotan: indibiduala, kolektiboa eta sozio-politikoa.
- **komunitarioa**: gizartearen emakumeek bizi dituzten berezkeriei modu kolektiboan aurre egiteko erremintak eta baliabideak eskaintzea du helburu.

► INDARKERIA MATXISTARI AURRE

→ Indarkeria matxistaren detekzio, arreta eta erreparaziorako espazioa izan nahi du Etxiak. Zu edo zure inguruko norbait egoera zailean bazaudete, indarkeria jasaten ari bazara edo zure egoera partekatzeko beharra baduzu, zatorz Emakumion Etxera. Arreta espezializatua eta eskura dituzun zerbitzuen inguruko informazioa emango dizute bertan.

► AHOKULARITZA PSIKOLOGIKOA

→ Auto-zainketarako eta ongizate emozionalerako arreta indibidualizatua eskaintzen da. Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburu, askotariko egoera konplexuak bizitzen ari diren emakumeentzako eta lgtbiq+ pertsonentzako zerbitzua da.

► AHOKULARITZA JURIDIKOA

→ Emakumeenganako indarkeria, diskriminazio eta eskubide-urraketen aurrean, informazioa eta aholkularitza juridikoa eskaintzen da

► NOLA PARTE HARTU ETXEKO DINAMIKAN?

→ Ikasturte honetan 5 lantalde daude martxan, bakoitza bere rol edo funtzioarekin:

- **zubigileak:** komunikazioa lantzeko
- **programatzaileak:** egitaraua osatzeko
- **talariakideak:** ikuspegi zabalarekin lan egiteko
- **saltserak:** ekintzan aritzeko
- **jostunak:** etxeko harremanak zaintzeko

→ Etxeko bizitzan, plangintzan eta erabakietan parte har daiteke lantaldeetan sartuta. Bakoitzak ikusiko du, bere jakintza, gaitasun edo esperientzien arabera, zein taldetan sartu. Dena den, lantaldeen arteko dialogo horizontalak sustatuko dira, pertsona bakoitzak rol batetik bestera igarotzeko aukera izan dezan.

→ Animatu eta izan parte! Elkar ezagutzeko, elkar babesteko, sareak ehuntzeko, zapalkuntzak desagerrarazteko eta eragindako mina erreparatzeko.

► ETXIA, EGOTeko LEKUA

→ Emakumion Etxian parte hartzeko ez da derrigorrezkoa lantaldeetako batean sartzea. Etxian egotea ere parte hartzeko modu bat da, Etxekide izateko beste modu bat, eta hori ere bultzatu egin nahi da. Hala, Etxia zabalik dagoen orduetan edozein emakume joan ahal izango da bertara, lasai egotera, irakurtzera, kafe bat hartzera –sukaldean prestatu ahal izango du– edo lagunekin egotera. Egote horrek harreman berriak sortu eta elkarrekin saretu edo antolatzeko aukerak ireki ditzake, eta, horregatik, egoteak berak duen potentzial eraldatzailea ere balioan jarri nahi da.

► ANTOLAKETA SISTEMA

→ Antolaketa eta gobernantza sistema partekatatu, parte hartzaile eta horizontalaren aldeko apustua egin du Emakumion Etxiak. Harreman hierarkikoetatik ihesi, elkarren arteko etengabeko dialogoan dauden lantaldeetan antolatuta egongo da, eta guztien arteko koordinazio egokia bermatzeko lantalde guztietako ordezkariak osatutako Gobernantza Zirkulua bilduko aldiro. Espazio honetan udalbatzan ordezkariak duten talde politikoak ere egongo dira.

→ Baliabide pertsonalei dagokienez, Udalak kontratatutako bi langilek -berdintasunean adituak- lan egingo dute Emakumion Etxian, etxeko dinamika koordinatzen eta bertara hurbiltzen diren emakumei arreta eta informazioa eskaintzen.

► ETXEKO ORDUTEGIA

→ Emakumion Etxia astelehenetik ostiralera egongo da zabalik, goizez (10:00-13:00) eta arratsaldez (16:30-20:00). Orduetegi horretan etxeko langileak egongo dira bertan, arreta eta informazioa ematen. Ordu horietatik kanpora ere –eguerdiko orduetan edo asteburuetan– egongo da Etxia erabiltzeko aukera, bilera, ikastaro edo bestelako ekitaldiak burutu ahal izateko.

► KONTAKTURAKO

- **HARREMANETARAKO**
- 943 780 699
 - 688 785 247
 - emakumionetxia@onati.eus
 - Instagram@emakumionetxia

→ **HARPIDETU ZAITEZ**
Emakumion Etxeko egitarauari buruzko informazioa jaso nahi izanez gero, eman izena beheko QRan



EKAINEKO EGITARAUA (*)

EKAINAK 4 / 10:30-11:30
Bisita gidatua, gaztelerez.

EKAINAK 8 /
Bilera orokorra.

EKAINAK 9 / 18:00-19:30



Hitzaldia: 'Lagunekin bai! Adiskidetasun feminista'. Miren Guillo eta Marta Luxan.

EKAINAK 11 / 18:00



'JO!' ikuskizuna, Beatriz Elgezabal eta Anduriña Zurututzaren eskutik.

EKAINAK 13 / 17:00-19:00



Salsa batxata kuir.

EKAINAK 16 / 17:30-18:30
Bisita gidatua, gaztelerez.

EKAINAK 18 / 10:30-11:30
Bisita gidatua, euskaraz.

EKAINAK 18 / 18:00



Zinegoak emanaldia

ERAKUSKETA
Feminismoaren ertzetatik irakurle taldeak gogoeta dekolonialetan oinarrituta egindako collage-ak ikusgai daude Eikusgai Emakumion Etxian

(*) Ekintza guztiak doan eta izen-emate gabe dira.

EMAKUMION ETXIA ARGAZKITAN

► BEHE SOLAIRUA




► Ezkerrean *Behebarrua* Kale Zaharretik sartzerakoan aurkituko dugun egoteko lekua eta harrera gunea.
▲ Goian, Emakumion Etxeko langileen gunea.



►◄ Behe-solairuko egonlekua, *Eskilarapea*. Ezkerrean ikus daitekeen moduan, sukaldetxo bat dago txoko honetan, eta sukaldearen ondoan -eskumako argazkia- mahaitxoak eta harmaila gunea. Hitzaldi-ikastaro edo tailer baten ostean lasai egoteko edo kafe bat hartzeko lekua ian daiteke, eta baita formatu txikiko ekitaldiren bat antolatzeko ere.



► 1. SOLAIRUA



►▲ Etxeko lehen solairuan, Aita Madina kale aldera ematen duen gunean, bi bulego egokitu dituzte, ezkerreko argazkietan ikusten den moduan. Bertan emakumeei zuzendutako Aholkularitza Psikologikoa eta Aholkularitza Juridiko zerbitzuak eskainiko dira.



► ▲ Lehen solairuan, Kale Zaharra aldera ematen duen gunean, Emakumion Etxeko areto nagusia egokitu dute. Hitzaldi, proiektzio, kontzertu eta askotariko ekitaldiak antolatzeko aukera egongo da espazio honetan.

► 2. SOLAIRUA



► ► Emakumion Etxeko goiko solairuan tailer, ikastaro, erakusketa eta bestelako ekitaldiak antolatzeko espazio zabal bat dago, behar eta premien arabera moldagarria izango dena, goiko argazkietan ikusten moduan. Solairu horretan bertan, baina Aita Madina kalera ematen duen aldean, batzarrak egiteko bilera gela dago, ondoko argazkian ikusten den moduan. Gela honetatik sartzen da baita ere Emakumion Etxeko klimatizazioa, aerotermia eta bestelako azpiegituren kontrol gunera.

► BEHEBARRUKO TERRAZATXOA



► Eguraldi ona egiten duen egunetan Kale Zaharrera ematen duen atea ireki eta bertan irakurten, solasean edo kafe bat hartzen egoteo aukera eskaintzen du Emakumion Etxiak

Familiei arreta emateko espazioa eraberritu du Udalak

> Adin txikikoen babesari eta helduen bazterketa arriskuari zuzendutako arreta sozio-hezitzailea eta psiko-soziala eskaintzen da bertan

> Aurten 420.000 euroko diru-atala bideratuko du Udalak zerbitzu honetara

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatatu bat da, herritar guztien ongizatearen alde egitea xede duena. Horretarako, hainbat baliabidez hornitzen da sarea, eta horietako bat da familiei eta, bereziki, haurrei zuzendutako esku-hartze sozio-hezitzailea eta psiko-soziala.

Izan ere, haurren babesgabetasun egoerek eragiten dituzten beharriaz aurre hartzea eta erantzutea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuetako bat, eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden herritarrei laguntzea ere, pertsona horien gizarteratzea sustatuz.

Oñatiri dagokionez, Udalak *Denok Bat* lantaldearen bitartez eskaintzen du zerbitzu hori, eta, horretarako, 400.000 euro inguru –aurten 420.000– bideratzen ditu Udalak zerbitzu honetara. Zazpi profesionalaz –psikologoak eta familia- hezitzaileak– osatutako taldea da *Denok Bat* eta, dagoneko, 14 urteko esperientzia du Oñatin, eta herrian erroturako zerbitzua da, jada.

LOKALA ERABERRITU

Azken urteotan gora egin du *Denok Bat* zerbitzuak artatzen dituen familia kopuruak, eta lantaldea bera ere handituz joan da. Horregatik, Udalak berri eta egokitu egin du Bidebarrieta kaleko 14an duen lokala –150.000 euroko inbertsioa egin du–, zerbitzua hobetu eta behar berriei egoki erantzun ahal izateko.



▲ Udaleko Gizaarte Zerbitzuetako eta *Denok Bat* lantaldeko kideetako batzuk.

► Udalak eraberritu duen lokala, Bidebarrieta kaleko 14an. Aireztapena eta berokuntza berritzeaz gain, 4 gela egokitu dituzte bertan.





LIERNI ALTUBE
udaleko Ongizate
batzordeko burua



ESPAZIOA BERRITZEAREN BEHARRA

»
Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen den familia esku-hartze programa hazten joan den zerbitzu bat da: urtez urte lantaldea handituz joan da eta gora egin du zerbitzutik artatzen diren familia kopuruak ere. Horrez gain, zerbitzura iristen diren egoeren konplexutasuna handitu egin da. Horrek guztiak, espazioa egungo egoera eta beharretara egokitzeko premia sortu du, betiere, familiei kalitatezko esku-hartze eta zerbitzuak eskaintze aldera.



LEIRE BALENTZIAGA
Udal gizarte-langilea



ZERBITZUAREN BILAKAERA

»
Zerbitzuak izan duen bilakaera urtean zehar oso deigarria izan da. Beti, garai berrietara egokitzeko joera izan duela aintzat hartuta, profesional aldetik, bederen, izugarritzko hazkundera izan du programak: lan taldean hiru profesional izatetik, gaur gaurkoz, sei profesional (hiru familia-hezitzaile eta hiru familia-psikologo) izatera pasatu dira, betiere, udal mailako erreferentziatzeko gizarte langilearen gidaritzapean. Esan bezala, egokitu behar izan dira Oñatiarron beharretara, eta profesionalen eboluzioa ez bezala, lan egiteko estrategiak ere eten gabe egokitzen joan dira.

Horren erakusle da, egun, lan egiteko baliatzen diren hiru azpi zerbitzu desberdinak: sentsibilizazio eta detekzio goiztiarra, familia esku-hartzea eta bazterketa arriskuan dauden helduen esku-hartzea.



DENOK BAT LANTALDEA

"Helburua adin txikikoen babesa eta ongizatea bermatzea da, eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu haur edo nerabeen guraso eta gainontzeko erreferenteekin zuzeneko lanketa egitea"

Nolako zerbitzua da? Nork osatua?

Gertuko zerbitzu bat dela kontsideratzen dugu, lan talde profesional batek eratua: koordina-tzaileak, hiru familia psikologok eta hiru familia hezitzailek osatzen dute lantaldea. Gizarte Zerbitzuetako haur eta nerabeen arloko ardura duen teknikariaren gidaritzapean dago taldea.

Zein kasu artatzen dituzue?

Adin txikikoei eta berain familiei zuzenduriko zerbitzua da. Ondoez emozionalaren adierazleak dituzten adin txikikoen sistema familiarrekin esku-hartzen dugu, lanketa psikoterapeutiko eta sozio-hezitzaile baten bitartez. Helburua adin txikikoen babesa eta ongizatea bermatzea da, horretarako, ezinbestekotzat jotzen dugu haur edo nerabeen guraso eta gainontzeko erreferenteekin (irakasle, aisialdiko hezitzaile, osasun arloko profesionalak...) zuzeneko lanketa egitea. Izan ere, ulertzen dugu, haurren ondoeza ez dela arazo indibidual bat, bere bizitzako hainbat testuingurutako dinamika eta erlazioen ondorioa baizik.

Horrez gain, hurbileko elkarrekintza sustatzen dugu haur eta gazteen komunitatea eratzen duten beste eragile batzuekin (ikastetxeak, aisialdia eta osasun sistema). Ahalik eta esku-hartze integralena eskaintzeko asmoz.

Askotariko egoera motak artatzea dagokigu. Familia guztietan gertatzen dira krisi edo zailtasun momentuak, eta, zenbaitetan, familiei kostatu egiten zaie egoera horretara egokitu eta aurrera egitea, eta ondoeza eragin dezake familiako kideengan eta, bereziki, adin txikikoengan. Ondoez hori denboran zehar mantentzen bada edo areagotzen joaten bada, adin txikikoaren garapen prozesuan eragin negatiboa izan dezake. Hori horrela, gure zerbitzuaren helburua da familiarren baitan egon daitezkeen zailtasunek haur eta nerabeengan ahalik eta inpaktu txikiena izatea. Horrez gain, beraien garapenean zehar indarkeria mota desberdinak jasan dituzten eta jasaten ari diren adin txikikoen egoerekin ere lan egiten dugu.

Nola da egiten dugu esku-hartzea?

Kasuan kasuko irakurketa eta egokitzapena egitea ezinbestekoa deritzogun arren, gure lan eredu orokorra ondorengoa dela esan dezakegu.

Ohikoena, bi urteko esku-hartzea izatea da. Bertan, familia nukleo bakoitzarekin, maiz, familia psikologo eta hezitzaile batek dihardute lanean. Esku-hartze saioak espazio ezberdinetan egiten dira: *Denok Bat*-en bulegoetan, familiarren etxeko testuinguruan eta adin txikikoen eremu naturalean. Orokorrean, familia psikologoek astean saio bat egiten dute eta familia hezitzaileek bi bisita. Familiako kide guztiekin egiten dugu lan eta helburu nagusia beti izan ohi da gurasoak trebatzea, beraien seme-alaben beharrak modu egokian asetu ditzaten. Horrekin batera, familia dinamikek adin txikikoarengan eragin duen ondoezari ere heltzen diogu, ondoez emozionala arintzeko beharrezkoak diren baliabideak aktibatzen

dira, ondoezak bere garapenean ahalik eta inpaktu txikiena izan dezan.

Prebentzio lana ere garrantzitsua izango da, ezta?

Lan eremu pisutsuena

familia esku-hartzea den arren, prebentzioan gero eta indar gehiago ari gara jartzen, ahalik eta esku-hartze goiztiarrena egin ahal izateko; modu horretan, adin txikikoen ondoeza lehen bait lehen hartzea lortzen da. Horretarako, ezinbestekoa dugu komunitatea osatzen dugun profesional eta eragileen arteko sare lana osatzea. Hau horrela, ikastetxeetako, aisialdiko edota osasun zerbitzuetako profesionalekin harreman estua dugu, urtean zeharreko sare lana eginez.

Prebentzioaren ildoaren baitan, 2023az geroztik, Emozioz blai izeneko proiektua garatzen dugu herriko hiru ikastetxeekin. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago eta sei astetan zehar, Denok Bat lantaldeko bi profesionalak ordubeteko saioak egiten dituzte, adin txikikoek alor sozio-emozionalean bizi dituzten eta biziko dituzten egoerei aurre egiteko tresnak izan ditzaten.

FAMILIA GUZTIETAN GERTATZEN DIRA KRISI EDO ZAILTASUN MOMENTUAK, ETA, ZENBAITETAN, FAMILIEI KOSTA EGITEN ZAIE AURRERA EGITEA.



Berde eta urdin koloreko marrek erakusten dute Urrutxutik Zañarturainoko hodi berriak jarraituko duen bidea

Urrutxuko ur-biltegia eta Zañartu lotuko dituen hodi berria sartuko dute

> Aldi berean, Santipillauko bihugunea zabaltzeko lanak ere egingo dira. > Proiektuak ia 300.000 euroko kostea du, denera.

Herriko ur-hornidura sarea hobetzeko asmoz, Urrutxuko ur-biltegi nagusia eta Zañartu auzoa lotuko dituen hodi berria instalatzeko lanak egingo ditu Gipuzkoako Ur Konsortzioak. Izan ere, gaur egun irteera bakarra dago Urrutxuko ur-depositotik herri aldera eta, jakina, lerro horretan hornidura mozketaren bat gertatzen bada –matxura edo mantenu lanengatik– herri osoari eragiten dion etena gertatzen da. Horregatik, ur hornidura bermatu ahal izateko, bigarren irteera bat egokitzea komenigarria da. Garbi ikusi zen hori, adibidez, 2024ko abenduan izan zen matxuraren ondoren.

Hala, Girder ingeniariak idatzitako proiektuaren arabera, ura eramateko 200mm.-ko diametroa duen burdin-urtuzko hodia instalatuko da Urrutxuko ur-biltegia eta Zuazolak zubian, ibaiaren beste aldean, dagoen sarea lotzeko –580 metro lineal, gutxi gora behera–. Goiko irudian ikus daiteke nondik bideratuko

den hoditeria berria. Urrutxuko ur-biltegitik zuzenean jaitsiko da Santipillau baserriraino, eta handik aurrera udal jabetzekoa den landa-bide bazterretik joango da. Artia ibaia zeharkatzeko, zubiaren taularen azpitik eramango da hodi berria.

GIPUZKOAKO URAK ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Hoditera berria instalatzeko herrigunetik Zañartura doan bidea zulatu beharra dagoenez, Santipillau baserri ondoko bihurgune itxia zabaltzeko lanak batera egitea erabaki du Udalak, ibilgailuen eta oinezkoen segurtasuna areagotzeko.

Horregatik, obra biak osagarriak direnez, lanak modu koordinatuan egiteko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Gipuzkoako Urak-ek

Gipuzkoako Urak-ek hartuko du bere gain obraren kontratazio espediente osoa –283.398 eurokoa da (BEZ barne) proiektu osoaren lizitazio prezioa–, eta Ur Konsortzioak ordainduko du ur hornidura berritzearen kostua –213.606 eurotan (BEZ barne) baloratu da–, proiektuaren lizitazioaren %75,37. Udalak ordainduko du bihurgunea egokitzeko lanen kostua –69.788 eurotan (BEZ barne) baloratu da–. Obraren zuzendaritza –5.800 €– eta segurtasun eta osasun koordinatzailearen –1.500 €– kontratazioa bi erakundearen artean ordainduko dute, dagokien obra-kostuaren ehunekoaren arabera –%75,37 eta %24,63, hurrenez hurren–. Proiektuaren arabera, 21 asteko epea aurreikusten da lan guztiak burutzeko.

Gaur egun irteera bakarra dago Urrutxuko ur-biltegitik herri aldera, eta matxura edo mantenu lanengatik mozketaren bat gertatzen bada, ur hornidura bermatu egin ahal izango da Zañartuko irteera berriari esker



Bide hori erabiltzen duten
ibilgailu eta oinezkoen
segurtasuna hobetzea da
esku-hartze honen helburua

Santipillauko bihurgunea zabaldu egingo du Udalak

> Amaitu dira, jada, bertan dagoen argindar lineako postea lekualdatzeko lanak egiten

Aspaldikoa da Santipillau baserri ondoko bihurgune itxia zabaldu eta zuzentzeko eskaera, ibilgailu eta oinezkoen bide-segurtasuna hobetze aldera. Orain arte, baina, inguruko auzotarren eskaerak mahai gainean geratu izan dira, egin beharreko lanen koste handiaren ondorioz. Orain, baina, Urrutxuko ur-biltegia eta Zañartu lotuz Gipuzkoako Urak enpresak instalatu behar duen hoditeria berria bertatik igaroko dela kontuan hartuz, goian aipatutako bihurgunea zabaldu eta, hartara, ikusmena hobetzeko lanak egitea erabaki du Udalak, Garagaltza, Zañartu eta Urrexolako auzotarrek lankidetzaren hitzarmena sinatuta. Kurbaren trazadura hobetu ahal izateko, egungo plataforma zabaldu egingo da eta, horretarako, ezpondari eusteko harri-lubetzako horma bat eraiki beharko da. Inguru horretan dauden farolak ere kendu egin beharko dira, ondoren, kanalizazioarekin batera berriro jartzeko. Obra arduradunek behar diren neurriak hartuko dituzte, udaltzaingoarekin adostuta, trafikoari, oinezkoari eta inguruko bizilagunei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Lankidetzaren hitzarmena sinatu du Udalak Garagaltza, Zañartu eta Urrexolarekin

Santipillauko bihurgunea zabaldu ahal izateko, bertan dagoen argindar lineako postea lekualdatu beharra dago, eta hori egin ahal izateko lankidetzaren hitzarmena sinatu du Udalak Garagaltza, Zañartu eta Urrexola auzoekin, bertako bizilagunak baitira bide hau gehien erabiltzen dutenak.

Hala, auzo-alkateen foroan adostutako irizpideen arabera, 13Kv-ko argindar linearen deribazio lanen kostearen erdia -17.816 €- Udalak hartuko du bere gain, eta beste erdia aipatutako auzoen artean ordainduko dute, 'Auzotasuna' programaren baitan auzo bakoitzak jasotzen duen dirulaguntzaren proportzioan. Auzoek, bere zatiari aurre egiteko, urteko 'Auzotasuna' programaren bidez jasotzen duen dirua baliatu ahal izango dute, eta 2027ko epe muga izango dute nork bere zatiari aurre egiteko.

Oñargik ezarritako baldintza tekniko-ekonomikoen arabera, lanek 33.033 euroko kostea izango dute, eta horri gehitu behar zaio aurretik egindako azterlanaren kostea (2.600 €).



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea

943 53 36 57

20560 OÑATI (Gipuzkoa)

4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

Usakorako bidegorria prest uda sasoirako

» Udalak ez du aparkaleku berezirik egokituko Usakon; Munazategiko parking publikora bideratuko ditu autoak



Amaitu dira, jada, Torrea-zoko zubia eta Exibai baserria lotzen dituen bidegorria –700 metro inguru– oinezkoen eta bizikletan doazen herritarren segurtasuna hobetuz. Gogoratu, gainera, bidegorri honek jarraipena ematen diola herrigunetik Torrea-zora doan bidegorriari-.

Orotara, 710.000 euroko aurrekontua izan du proiektuak, eta Europar Batasuneko *Next Generation* funtsak izan dira finantzazio iturri nagusi –570.000 euroko laguntza lortu zuen Udalak–. Horrez gain, ia 100.000 euroko laguntza jaso du Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Proiektua bat dator udal gobernuak mugikortasun jasangarriaren alde hartua duen konpromisoarekin. Hala ere, azaldu du Izaro Elorza alkateak: "Mugikortasun jasangarriaren bidean funtsezkoa da bizikletendako eta oinezkoendako bide seguruak eraikitzea. Horixe da udal gobernuaren konpromisoa. Bidea, seguruagoa, atsegina eta lasaiagoa da orain. Uda sasoiari Usakora doazenendako ez ezik, urtean



IZARO ELORZA ETA XABIER IGARTUA

Alkatea eta Landa Garapeneko batzordeburua

"Mugikortasun jasangarriaren bidean funtsezkoa da bizikletendako eta oinezkoendako bide seguruak eraikitzea. Horixe da udal gobernuaren konpromisoa"



Adi!. Chinchurreta enpresa parean bidegorriak errepidea zeharkatzen du eta oinezko nahiz bizikleta zaleek ez dute lehentasunik

zehir darabilten askotariko herritarrendako ere izango da mesedegarri".

Torrea-zoko zubian hasi eta lehen metroetan, Elazarra baserri parean, eskuinaldetik doa bidegorria, Chinchurreta enpresa igaro arte. Ondoren, errepidea zeharkatu eta bidearen ezkerreko aldetik jarraitzen du. "Etxe Haundi jatetxeko eta Chinchurreta lantegiko sartu-irtenean sor ditzaketen arriskuak saihestu gura izan dira horrela", argitu du Xabier Igartua Landa Garapeneko batzordeburuak.

EMAITZAREKIN POZIK

Emaitzarekin "pozik" daukela adierazi dute udal ordezkariak, proiektuak zenbait konplexutasun zituen arren. "Azpiegitura instalakuntzak eta lekuz aldatu behar izan den horma bat zegoen Upain-gua eta Usako artean, eta horrek zaildu egin du obra. Hala ere, ondo joan da, eta *Next Generation* funtsetatik eratorritako diru laguntzen justifikazio epearen barruan eta aurreikusitako inbertsioarekin bukatzea lortu dugu".

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea

Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20



Autoak Munazategiko parking publikora bideratuko dira

» Usakoko bide bazterrean aparkatzeak isuna ekar dezake. Udalak informatzailea ipiniko du.

Udalak irtenbidea eman gura dio Usako inguruan gaizki aparkaturiko autoekin sortzen den arazoari, ingurune naturala babestu eta uda sasoiak auzoko bizilagunengan eragin ditzakeen kalteak ekiditeko. Bide horretan, aurten ez du aparkaleku berezirik egokituko, eta Urrexola, Garagaltza eta Zañartuko auzo-alkateekin adostuta, Munazategiko aparkaleku publikora bideratuko ditu autoak, jende gutxiago erakarriko den arren, Usakorendako ona izango dela iritzita. Gainera, bidegorria eginda, orain seguruagoa da Munazategiko aparkalekutik Usakora oinez joateko bidea. Horrekin batera, hobetu egin dira herrigunetik Usakora oinez zein bizikletaz joateko aukerak, irisgarritasuna eta bidearen segurtasuna.

INFORMATZAILEA

Ohitura aldaketa ekarriko duenez, informatzaile bat egongo da Usakoko sarrera inguruan, gerturatzen diren autoei Munazategiko aparkalekua non dagoen adierazi eta bide bazterrean ezin daitekeela aparkatu adierazteko –informatzera mugatuko da–. Bide bazterrean aparkatzeak isuna ekar dezake.

BAINU DENBORALDIA

Ekainaren 20an zabalduko da Usakoko bainu denboraldia, eta irailaren 6ra bitartean egongo da sorospen zerbitzua, 16:00etatik 20:00etara. Osotara, 18.000 euro pasako aurrekontua bideratu du Udalak sorospen zerbitzura.

la 39.000 euro ordaindu behar dizkio Udalak langile ohi bati

Eibarko Instantzia Auzitegiko Lan Arloko Sekzioak Oñatiko Udala zigortu du mantentze-lanetako langile ohi bati 38.678,50 euro ordaintzera, erantzukizun zibilaren kontzeptuan, baja laboral luze batean pairatutako kalteengatik. ELAren lan-osasuna sustatzeko Bidelagun fundazioak tartearri zuen Udalaren aurkako demanda, eta epaiak ondorioztatu du Udala dela langilearen urte eta erdiko baja egoeran jasandako kalteen erantzule. Auzitegiak frogatutzat jo du Udalak ez zuela langilearen postua egokitu, nahiz eta produktu kimikoak manipulatzeko eta haien eraginpean egoteko mugak zituen.

ELA pozik agertu da epaiarekin, eta gogorarazi du zein garrantzitsua den lan-ingurune seguruak bermatzea eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betezea.



Palestinaz ez ahazteko

'Oñati Palestinarekin' plataformaren ekimenez *Palestina lorategia* izena ipini diote Kalegoienako berdegune bati. Maiatzaren 24an egin zen ekitaldia, izena euskaraz eta arabieraz irakur daitekeen plaka bistaratzuz eta palestindarren ikur den olibondo bat landatuz. Okupazioak, garbiketa etnikoak eta genozidioak jarraitu egiten duela salatu zuten antolatzaileek, eta modu kolektiboan erantzutea beharrezkoa dela adierazi.



Merezitako omenaldia Azpiazuri

Jose Antonio Azpiazuk Artixa kultur elkarteak eskainitako omenaldia jaso zuen maiatzaren 29an, hainbat urtetan egindako ikerketa eta dibulgazio lana eskertuz. Udalak ere parte hartu zuen aitortza ekitaldian, eta baita Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak eta hainbat historialari eta ikerlarik ere.

LEIHOAK

GORTINAK

TOLDOAK

ELTXO-SAREAK



MAKOR DENDA

LIZAUUR 6

943 106 235 / 688 862 512



Plaza ondoko eremua berritu da, espazio publikoaren erabilera anitza eta herritarren arteko elkargunea sustatzeko asmoz

Lanak guztiz amaitu ez badira ere –egun barrakek hartzen duten eremu asfaltatua leuntzea eta berdegunean eserleku ergonomikoak jartzea falta da– maiatzaren 25az geroztik erabilgarri dago, jada, Foruen plaza ondoko berdegunea eta pilotalekurainoko eremua.

Iazko uztailan hasi ziren berritze lanak. Lur azpitik doazen ur, argiteria, gas eta telekomunikazio azpiegiturak berritzea izan zen aurreneko lana. Horretarako ireki ziren zangak estali ostean zoladura eta altzariak berritzeari ekin zioten. Goiko argazkietan ikusten den moduan, gorri-hori koloredun adokin zeramikoaz estali dute kioskotik iturrirainoko eremu guztia, Gernikako arbola ere gunean integratuz eta presentzia handiagoa emanez elementu historiko-artistiko hauei. Gazteleku aurrealdean, azoka aldamenean eta Lazarraga parkeko horma ondoan ere ipini dute adokina, espazio horiek balioan jarri eta eremu osoari batasuna eman guran.

BERDEGUNEAK ZAPALGARRI

Kiosko inguruko berdeguneei dagokienez, kendu egin dituzte hauek inguratzen zituzten burdinazko hesitxoak, hemendik aurrera, berdeguneak ere erabilgarri bihurtuz; hau da, belar

guneetara modu naturalean sartu ahal izango da aurrerantzean. Gernikako arbolaren inguruan zegoen forjazko baranda ere kendu egin dute, eta egurrezko eserlekua dago orain buelta guztian.

Azpiarratzeko moduko beste elementu bat, kioskoaren atzealdean egokitu duten egurrezko harmaila gunea da, eskailera moduan, jolaserako, edota bertan antolatu ahal izango diren formatu txikiko ekitaldietarako auditorio moduko bat sortuz.

Nabarmentzeko modukoak dira, baita ere, berdeguneetan kokatu dituzten aulki eta mahai artistikoak, espazioari izaera berezia ematen diotenak, eta elkargunerako edota jolaserako aukerak sortzen dituztenak. Iturriaren aldamenetan mahai zabal bana jarri dute, bere aulki eta bankuekin, nahi den eran erabili ahal izateko. Altzari guztiak ere gorriak dira, udaletxeko balkoiarekin bat.

Azoka gunerako sarreran irisgarritasun baldintzak betetzen dituen arrapala berria egokitu dute, eta Lazarraga lorategiko hormaren kontran borobil erdiko forma duen bi mailadun plataforma jarri dute, landarez apainduko dutena, haur eta gaztetxoak elkartu eta egon daitezzen bertan. Azkenik, Elorza



IZARO ELORZA ETA INIGO RUIZ
Alkatea eta Hirigintza batzordeburua

Espazio multi-funtzional bat da, herritar guztiek erabiltzen dutena, eta izaera horri eutsi nahi izan diogu

jeneralaren omenezko iturria ere berritu dute. Gogoratu, gainera, obra hau baliatuz, plaza erdian zegoen argi-postea kendu eta kiosko ondoko berdegunean kokatu dutela.

IRISGARRITASUNA ETA INKLUSIOA

Irisingarritasuna eta inklusioa izan dira eraberritze lan hauen ardatz eta helburu nagusiak, Iñigo Ruiz Hirigintza batzordeko buruak azaldu duenez. "Azken batean espazio multi-funtzional bat da, herritar guztiek erabiltzen dutena, eta izaera horri eutsi nahi izan zaio, eguneroko jarduerak (jolasa, aisialdia, festak, azoka, hezkuntza jarduerak...) mantendu eta bestelako erabilerak ahalbidetuz".

Projektuan udaleko sail ezberdinek parte hartu dutela azpimarratu du Izaro Elorza alkateak. "Hirigintza sailarekin batera, Berdintasuna, Hezkuntza, Gazteria, Partaidetza eta Zerbitzuen sailek ere parte hartu dute, helburu garbi batekin: plaza inguruko eremua herritar guztientzat irekia izatea, adina edo jatorria edozein delarik ere. Azken batean, irisingarritasuna ez baita azpiegitura kontua soilik, gizarte justuago eta kohesionatuago baten oinarria baizik. Irisingarritasuna ulertzeko eta egiteko modu berri bat da, eta udal gobernu honek konpromiso irmoa du irisingarritasun unibertsalarekin".

AZKEN ERREMATEAK

Plazako lanak guztiz amaitzeko iturria eta frontoiaren arteko guneko asfaltoa leuntzea falta da, "giralaxe efektudun errematea izango du zoruak", azaldu du Ruizek, eta berdeguneen inguruan ergonomia irizpideak betetzen dituzten jarlekuak ipintzea. Ekaina amaierarako lanak amaituta egotea espero dute udal arduradunek. •

Pintada, pankarta eta kartelak eztabaidagai

Maiatzeko osoko bilkura 'Eremu publikoaren neutraltasuna eta garbiketa bermatzeko' mozioa aurkeztu zuen EAJren udal taldeak. Gure eraikin, kale eta plazek –beraien fatxada eta altzariekin– osatzen duten espazio publikoa herritar guztien ondare partekatua dela adierazi zuten jeltzaleek eta, beraz, haren garbitasuna, harmonia estetikoa eta neutraltasun politikoa ondasun komun gisa bermatu behar direla, hori egin ezean, inpaktu estetikoaz haratago, inpaktu soziala eta ekonomikoa eragiten duelako.

Mozioak zioen espazio publikoa ezin dela aldebakartasunez erabili herritartasun osoa ordezkatzeko ez duten jarrera politikoa edo ideologikoa erakusleho pribatu gisa. Are gutxiago, sare sozialek edozein jarrera, eskaera edo kexa publikoki komunikatzeko aukerak unibertsalizatzen dituzten garai hauetan.

Hala ere, gure herriko kaleak pintadez, pankartez eta kartelez beteta daudela salatu zuen EAJk, "kasu askotan, ezabatzen ez diren eta urteetan irauten duten pintadak herriaren irudia nabarmen kaltetuz". Are, askotan, pankarta eta kartel horiek mehatxuzkoak edo iraingarriak diren edukiak izaten dituztela salatu zuten jeltzaleek.

Espazio publikoaren garbitasuna eta neutraltasuna bermatzeko ardura eta ahalmena udal gobernuarena dela gogorarazi ondoren, indarrean dagoen udal-ordenantza betearaztea eskatu zuen EAJk, eta araudia errespetatzen ez dituzten pintada, pankarta edo kartelen bidez espazio publikoaz jabetzeko modu guztiak salatu egin behar direla adierazi zuen. Ildo berean, pintada, pankarta edo kartel bidez espazio publikoetan erakusten den edozein mehatxu, irain edo gorroto-delituko mezuak gaitzetsi eta berehala kentzea eskatzen zuen EAJren mozioak.

UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNA

Udal gobernuak kezkarritzat jo zituen EAJren mozioak jasotzen zituen hainbat

termino eta esaldi. "Lehenago ere galdetu izan dizuegu zein den EAJren benetako kezka, herriaren txukuntasuna (Oñati ez dago zikin, txukun dago) edo herriko espazio publikoan adierazteko askatasunak" galdetu zuen EH Bilduko bozeramaleak, "eta mozio honetan sekulako presentzia du bigarren horrek, txukuntasanarenak baino gehiago. Ez genuen uste EAJ halako mozio bat aurkeztera iritsiko zenik, beste alderdi batzuekin lotzen ditugulako halakoak, eskuinekoak, muturrekoak...".

Inpaktu soziala inpaktu estetikoaren eta ekonomikoa pare jarri izana ere kritikatu zuen udal gobernuak. "Aldarrikapenek inpaktu sozial bat dakarte, bai, irakurtzen dutenengan eragin gura dute, irakurtzen duena pentsarazi, ekimenean batean parte hartzerantz animatu... hori bilatzen dute. Inpaktu sozial horretaz ari zarete?".

Espazio publikoaren neutraltasuna errespetatzeari dagokionez, "zer da neutraltasuna?" galdetu zuen gobernu taldeko ordezkariak; "zerbait jartzea neutrala ez bada, zerbait jartzea debekatzea ez al da neutraltasunik gabe jardutea?". Duela gutxi Palestinaren inguruan onartutako mozioaren harira –udalbatzak aho batez onartu zuen– Palestinaren aldeko pankarta bat kalean atera zutenak aldebakartasunez ari ote ziren eta herritartasun osoa ordezkatzeko ote zuten galdetu zuen EH Bilduko ordezkariak.

Sare sozialen erabilerari dagokionez, sare sozial nagusien jabeek mundu mailan duten boterea gogorarazi zuen udal gobernuo kideak, eta herritar guztiek ez dutela bermatua sarbidea.

EAJren mozioak jasotako zenbait termino eta esaldi kezkarritza zirela gaineratu zuen. "Kezkarritza adierazpen askatasunerako, demokraziarentzako, eta kausa askorentzako. Guk adierazpen askatasunaren, elkarrizketa politikoa, bizikidetzaren demokratikoa eta aniztasun ideologikoa alde jardungo dugu", amaitu zuen EH Bilduren ordezkariak. •



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Bukatu dira Mendiko kale irisgarriago egiteko lanak

Bukatu dira, jada, Mendiko kaleko irisgarritasun eta urbanizazio lanak. Oro har, mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako gune irisgarria sortzea, eta Errekalde auzoaren eta herriko erdigunearen arteko lotura hobetzea izan dira helburu nagusiak. "Proiektua bat dator Oñatiko Udalak azken urteetan herri inklusiboago eta irisgarriagoa lortzeko egina duen apustuarekin. Obrak, Errekalde eta herriaren erdigunearen arteko lotura hobetzea dakar. Asko dira egunerokotasunean bide hori darabilten herrikideak", azaldu du Izaro Elorza Arregi Oñatiko alkateak. Proiektuak 271.795 €ko (+BEZ) aurrekontua izan du.

Hainbat aldaketa eragin dituzte urbanizazio lanek: plataforma bakarreko espazio bilakatu da oinezkoen mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko –maila berean daude espaloiak eta galtzada–; arrapala egokitu da –eskailera zati bat ordezkatuta–; euri-uren hustubide sistema egokitu da –drainatzea hobetzea eta ur pilaketak saihestea ekarriko du horrek–; material gogorreko hormigoi inprimatzuko zoladura jarri da espaloian...



» IÑIGO RUIZ / Udaleko Hirigintza batzordeburua

"Herritarren eguneroko bizitza erraztu eta espazio publikoak pertsona guztientzat erabilgarriago egon daitezzen ari da lanean Udala"

IRISGARRITASUNETIK HARAGO

"Mendiko kaleko lanak ez dira irisgarritasunera mugatu. Kale atseginagoa, seguruagoa eta berdeagoa sortu nahi izan da. Gainera, bat dator espazio publikoak klima larrialdiaren testuingurura egokitzeko estrategiarekin", azaldu du Iñigo Ruiz Barron Hirigintza batzordeburuak. "Oro har, herritarren eguneroko bizitza erraztu eta espazio publikoak pertsona guztientzat erabilgarriago egon daitezzen ari da lanean Udala", gaineratu du.

AZPIEGITUREN BERRITZEA

Irisgarritasun lanak egiteaz gain, zenbait azpiegitura berritu dira. Batetik, argindar sarea berritzeko lanak egin ditu Oñargik, eta prest utzi du etorkizunean kableak lurperatzeko beharrezko obra zibila. Bestetik, ur-horniduraren zati bat berritu du Gipuzkoako Urakek.



Espaloiak eta galtzada maila berean dituen plataforma bakarreko espazioa bilakatu da Mendiko Kale. Gainera, Errekalde auzorako lotunean zegoen eskailerari zati bat kendu eta arrapala egokitu da, beheko argazkian ikus daitekeenez.



Coinbroker
EUSKADI

ASEGURU ARTEKARITZA

☎ 943 08 90 06

📞 688 77 45 31

✉ oinati@coinbroker.eus

📍 Arantzazuko ama 9, behea



Bizigune programari buruzko informazio saioa egongo da ekainaren 23an

> Hutsik dauden etxebizitzak alokairu babestura bideratzea da **Biziguner**en helburua. > Etxe-jabeei berme batzuk eskaintzen dizkie, hala nola, hilero errenta kobratzearen segurtasuna, eta kontratuaren amaieran etxebizitza egoera onean itzuliko zaiola.

Udal gobernuak martxoan aurkeztu zuen Etxebizitza Planaren lau ardatzetako bat alokairu eskuragarria sustatzea da. Gogoratu, Gislán aholkularitzak Oñatiko Udalarentzat egindako diagnostikoaren arabera, ETXEBIDEn erregistratuta dauden 219 oñatiarren eskaeretatik gehienak (%83,1) alokairuari lotutakoak direla.

Bada, hori guztiori kontuan hartuta, Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu berri du ALOKABIDEREkin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza sailaren menpeko sozietate publikoarekin, helburu argi batekin: Oñatin hutsik dauden ahalik eta etxebizitza gehien mobilizatzea alokairu

babestuan eskaintzeko, etxebizitza premian dauden bizikidetzaren unitateen eskura jarritz.

Ildo horretan, Alokabide-ren BIZIGUNE programari buruzko informazio saioa antolatu du Udalak. Etxebizitza alokairuan jarri nahi duten etxe-jabeei hainbat berme edo garantia eskaintzen die BIZIGUNEK, hala nola: hilabete bakoitzeko lehen astean errenta kobratuko dutela ziurtatzea, edota kontratua amaitzean etxebizitza kontserbazio egoera berean itzuliko zaiela, beste laguntza batzuen artean. Beste modu batera esanda, errentamendua kudeatzeaz eta sor litezkeen



arazoez ahaztu eta etxebizitzaren errentamenduaren kudeaketa integrala egiten du BIZIGUNEK.

Informazio saioa ekainaren 23an izango da, kultur etxeko zine aretoan, 18:00etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Debagoienean tasatutako eta babes ofizialeko 750 etxebizitza eraikitzea proposatu du EAJk

> Oñatiri dagokionez, Lazarragako lursailak erabiltzea proposatzen du 252 etxebizitza eraikitzeko.

Debagoiena eskualdeak bizi duen etxebizitza krisi larriaren aurrean etxebizitza berriak eraikitzeko asmo handiko plana aurkeztu du EAJk.

2017az geroztik –Arrasaten EAJ agintean egon zen 2015-2023 garaian izan ezik– etxebizitza babestuen sustapena ia geldirik geratu dela adierazi dute jeltzaleek. Oñatiri dagokionez, zehaztu dute, "2011n kudeaketa eredugarria egitetik azken zazpi urteetan etxebizitza babesturik ez eskaintzera igaro da".

Lurzoru urbanizagarriak ez dagoenez eta eraikinak birgaitzeko neurriak ez dagoenez, etxebizitza-krisia gero eta larriagoa dela dio EAJk. "Gero eta handiago den etxebizitza eskariak erantzun eraginkorrik gabe jarraitzen du" eta, horregatik, Debagoieneko udalerrri guztiak barne hartzen dituen plan integral bat



Goiko irudian koloreztatuta ikusten den eremua erabiltzea proposatzen du EAJk, 252 etxebizitza eraikitzeko

aurkeztu du etxebizitza promozio berriak garatzeko helburuarekin.

LAZARRAGAN 252 ETXEBIZITZA

Oñatiri dagokionez, Lazarragako lursailak erabiltzea proposatzen du EAJk, 252 etxebizitza eraikitzeko –horietatik 164 babes ofizialekoak–, eta beste garapen batzuk Kurtzekuan eta Kurtiderixan, –guztira 354 etxebizitza– batez ere tasatuak.

Debagoieneko etxebizitza krisia egiturazkoa dela uste du EAJk, eta belaraldi gazteenei larri eragiten diela. Ildo horretan, EH Bilduren esku dauden udal gobernuen ikuspegi eta ekintza falta kritikatu dute jeltzaleek. "Ezin diogu utzi gazteriari gure eskualdetik alde egiten etxebizitza eskuragarri ez dagoelako. Horregatik, irtenbide zehatzak proposatzen ditugu, hala nola: lurzoru urbanizagarriak berehala aktibatzea, erakundeen arteko lankidetzaren, eta etxebizitza publikoaren sustapena".

Jaurlaritzak etxebizitzarako sarbidea errazteko, bereziki gazteena, abiarazi dituen programak (*Gaztelagun*, *Gazte Aval*...) nabarmendu ditu EAJk. Baita Gipuzkoako Aldundiak etxea erosi edo alokatzeagatik aplikatzen dituen kenkari fiskalak.



Ekainaren 13an Iruñean batzeko deia **EUSKALTZALE GUZTIEI**

- > Euskalgintzaren Kontseiluak antolatu duen **Euskaltzaleon Martxan** parte hartzera deitu dute herriko hainbat eragilek.
- > Euskararen biziberritzeari bultzada emateko, euskalzaletasunaren giharra indartu eta **pizkunde berri bat** eragitea da helburua.

Euskalgintzaren Kontseiluak deituta, 'Euskaltzaleon Martxa' egingo da ekainaren 13an, Iruñean, 'Euskaraz bizitzeko behar den dena' lelopean, eta dei egiten zaie euskaltzale guztiei bertan parte hartzera.

Azken hamarkadetan berreskurapen ziklo bat eman den arren, gero eta gehiago dira euskararen etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna adierazten dituzten datuak eta ikerketak. Gainera, zailtasun horiei erantsi behar zaie euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi antolatu bat.

Bada, erronka berri hauen aurrean, Kontseiluak uste du beha-

rezkoa dela euskararen aldeko jauzi bat, paradigma aldaketa bat, ofizialtasuna Euskal Herri osoan, eta zeharlerrotasuna politika publiko guztietan.

Baina euskararen normalizazioa eta biziberritzea eraldaketa sozialeko prozesu bat da eta, beraz, aurrerapausoak ez dira soilik esparru instituzionalean erabakiko. Indar sozial antolatua eta herritarren inplikazioa ezinbestekoak dira euskalzaletasunaren giharra indartzeko. Eta hori da, hain zuzen, ekainaren 13ko mobilizazioaren helburua: egungo larrialdi linguistikotik indarraldira igarotzeko premia



**Jaia eta
aldarrikapena
uztartuko
dituen egun
osoko ekitaldia
izango da**

**Oñatitik
autobusak
antolatuko
dira Iruñera
joateko**

gizarteratzea eta pizkunde berri baterako txinparta izatea. Herritarren aktibazioan eragiteko ekitaldi mugarrizko izatea nahi du Kontseiluak eta, horretarako, ezinbestekoa da euskaltzale guztien inplikazioa.

AUTOBUSAK OÑATITIK

Oñatitik autobusak antolatuko dira Euskaltzaleon Martxara joateko. Autobusak goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 15:00etan irtengo dira Oñatitik. Txartelak Otamendi tabernan eskura daitezke. Gogoratu, 17:00etan hasiko dela mobilizazioa Iruñean.

Hiru zutabe, euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoak diren hiru oinarriak aldarrikatzeko

Ekainaren 13ko mobilizazioa arratsaldez egingo da, 17:00etan hasita. Hiru puntu ezberdinetan –Antoniuti, Runako Parkea eta Askatasun Enparantza– bilduko dira herritarrak, eta puntu horietatik abiatuko dira hiru zutabe, euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoak diren hiru oinarrietako bana aldarrikatuz:

✓ OFIZIALTASUN OSOA

Euskarak Euskal Herriko lurralde guztietan ofizialtasun osoa izan dezala aldarrikatuko duena: Ipar Euskal Herriko koofizialtasuna, Nafarroako euskararen zonifikazioa gainditu eta ofizialtasuna lurralde osora hedatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan oldarraldiaren ondorioz eragiten ari den desofizializazioaren aurrean euskararen normalizazioa blindatuko duen arkitektura juridiko berri bat.

✓ HIZKUNTZA POLITIKETAN JAUZI BAT

Hizkuntza politiketan jauzi bat eragiteko asmoz erakundeak, alderdiak eta eragile sozialak interpelatuko dituen, euskararen ezagutza orokortuko duten politiken eta erabilera normalerako baldintzak sortuko dituzten neurrien alde.

✓ EUSKALTZALETASUNA

Euskaltzaletasunaren ekarpena aldarrikatuko duena, azpimarratuko duena egunerokoan euskaltzale gisa jokatzearen garrantzia eta euskaltzaleak elkarrekin antolatzearen premia.

Arratsaldeko 18:00ak aldera, hiru zutabeek bat egingo dute Gazteluko Plazan, eta bertan egingo da amaierako ekitaldi berezia. Halaber, goizean zehar Iruñeko eragile ezberdinen eskutik kaleak girotzeko ekimenak egongo dira Alde Zaharrean. Beraz, egun osoan zehar Iruñeko kaleak euskaltzalez beteta egongo dira. Aldarrikapena eta ospakizuna uztartuko dituen eguna izango da, euskaltzale izatearen harrotasuna balioan jartzeko.



Finantzazio sistema berria izango dute udal euskaltegiek

Eusko Jaurlaritzak eta EUDELeK –EAEko udalen elkarteak– finantzazio sistema berria adostu dute udal euskaltegiek, epe luzearako finantzazio egonkorragoa bermatze aldera. Sistema berriak kudeaketa administratiboa sinplifikatuko du, eta jarduera-unitateetan eta emandako eskola orduetan oinarrituko da. Ibone Bengoetxea lehendakariorde eta Hizkuntza Politikako sailburuarekin batera, EUDELeko ordezkariak, tartean Iñaki Olalde Oñatiko Kultura batzordeburua, aurkeztu dute akordioa. Hitzarmenak udal euskaltegien egonkortasuna indartuko duela azpimarratu du Olalde, eta dei egin die herritarrei euskarara gerturatzera; "modu horretan, eta denon artean soilik, lortuko da Euskal Herri euskaldunago bat sortzea".

'HERRITU' egiteko aukera egongo da ekainaren 6an

GURE ESKUK Euskal Herri mailan abian jarri duen *Herritu* dinamikan izena emateko postua egongo da ekainaren 6an, Foruen plazan (11:00-14:00). Euskal komunitatea trinkotu eta euskal herritartasuna munduari erakustea helburu duen ekimena da *Herritu*, nork bere burua euskal herritar moduan agertu eta euskal komunitate honen parte dela harrotasunez adieraztea.

TXANDAREN kanpaina ekainean

'Erosi Txandarekin eta lortu zure hobaria' lelopean Txanda-txartelaren erabilera sustatzeko kanpaina jarri du abian Oñatiko dendarien elkarteak. Hala, ekainean zehar txartelarekin egindako erosketa bakoitzeko 5, 10 edo 20 euroko hobari-deskontuak jaso ahal izango dituzte bezeroek, erosketa horretan bertan aplikatzeko. Denera, 1.500 euro inguru banatuko dira saritan.

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



RABUB SALEC ETA NURA AHMED / GALUHA lekarteko kideak

"Gure helburua da bizitzan: egunen batean Sahara askera itzultzea, eta lortuko dugu"

Marokok Mendebaldeko Sahara inbaditu zuela 50 urte bete berritan, Oñatiko saharar komunitatearen ikuspuntua ezagutu nahi izan dugu

50 urte bete dira Marokok Mendebaldeko Sahara inbaditu zuenetik, Espainiak ehun urtez bere kolonia izandakoa abandonatu ostean, NBEk onarturiko deskolonizazio prozesua osatu gabe. Horrek Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko gerra ekarri zuen, eta dozenaka mila zibil sahararrek Aljeriako basamortura ihes egin behar izan zuten, Marokoko armadaren bonbetatik ihesi, eta bertan bizi dira orduz geroztik, Tinduf-eko errefuxiatuen kanpalekuetan, baldintza oso gogorretan. Hamasei urteko gerraren ostean, 1991n Marokok eta Fronte Polisarioak su-etena sinatu zuten, Nazio Batuen babespean. Handik urtebetera, 1992ko otsailan, autodeterminazio erreferenduma egitea hitzartu zuten, baina Marokok ez zuen bere hitza bete; Alauitar erregimenak behin eta berriz oztopatu ditu hautesle-errola definitzeko ahaleginak, azkenean, erreferendum baten ideia bera baztertzearaino. Kontua da, 35 urte geroago, gatazkak konpondu gabe jarraitzen duela. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren azken ebazpenak, 2025eko urriaren 31koak, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea aipatzen du, baina, aldi berean, esaten du Marokok 2007an aurkeztutako autonomia-planak izan beharko lukeela oinarririk bideragarriena Mendebaldeko Saharako gatazkari irtenbide politiko bat emateko. Hori da saharar herriaren errealitate gordina, basamortuaren erdian bizirauteko borrokatzen duena, inbaditzaileek beren baliabideak (arrantza, fosfatoa...) modu basati eta ez-legitimoan ustiatzen dituzten bitartean. Testuinguru horretan, Oñatiko sahararrak biltzen dituen Galuha elkartera hurbildu gara, beraien errealitatea eta ikuspuntua ezagutzeko asmoz.

Zer da Galuha?

Oñatiko saharar kolektiboa biltzen duen elkarte da, saharar herriaren kausa defendatzen duena. Galuha, Oñatin hainbat aldiz egon zen emakume saharar baten izena da; oso langilea eta oso borrokalaria izan zen –2020an zendu zen errefuxiatuen kanpalekuetan– eta haren izena jarri genion elkarteari, bera eta gure lurra berreskuratzeko borrokatu diren emakume guztiak gogoratzeko.

Zenbat saharar bizi zarete egun Oñatin?

2013 aldera iritsi ziren aurreneko sahararrak Oñatira, eta orain 23 familia gara, ehun bat lagun, pasatxo. Gehienok Tindufeko kanpalekuetatik etorri ginen; batzuk, adinez nagusienak, Mendebaldeko Saharan jaio ziren, eta gure haur gehienak Oñatin jaio dira.

Zer moduz zaudete Oñatin?

Oso ondo. Jendea oso jatorra da eta ongi hartuak sentitzen gara. Ez gara inoiz arrotz sentitu. Bizitza lasaia dugu eta ezin gara kexatu. Zailena euskararen gaia da, baina horretan gabiltza, "poliki-poliki". Etxebizitzaren gaia ere zaila dago, ez baitago ia alokairurako aukerarik, baina orokorrean pozik gaude. Caritasek lana bilatzen laguntzen digu, udaleko gizarte-laguntzaileek ere asko laguntzen digute, eta, egia esan, ez dugu inolako kexarik.

Saharar herria bitan banatuta dago: batzuk Marokok okupatutako lurraldean, eta besteak Aljeriako basamortuan. Zein da egoera batean eta bestean?

Marokok okupatutako lurraldeetako egoera itogarria da. Sahararrak etengabe daude poliziaren zaintzapean: norekin elkartzen diren, nora doazen, zer ospatzen duten... Ezin dute bizimodu normala egin, ezta askatasunez hitz egin ere. Errepresio handia dago.

Tindufeko errefuxiatu-esparruetan bizitza oso gogorra da, ezerezaren erdian daudelako,

baina, gutxienez, "askeagoak" dira. Gu, adibidez, errefuxiatuak gara baina atzerrira atera ahal izan gara ikasketak egitera. Marokoren uztarripen bizi direnek baino askoz aukera gehiago izan ditugu.

35 urte igaro dira Nazio Batuen Erakundeak babestutako bake plana sinatu zenetik, erreferenduma antolatzeko helburuarekin, eta, hala ere, ez da batere aurreratu. Nola uler daiteke hori?

Hori ulertzen da beste herrialde batzuen politika eta interesengatik, adibidez, Espainiarenak. Gogoratu behar da NBEk ez dituela inoiz aitortu 1975eko Madrilgo Akordioak, zeinetan Espainiak Marokori eta Mauritaniari transferitu baitzien Sahararen gaineko administrazio-agintaritzak, eta beraz, ondorio juridikoetarako Espainiak du Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio-prozesua bideratzeko betebeharra.

Eta, hala ere, gauzak gehiago korapilatu besterik ez ditu egin Sanchezek; izan ere, 2022an baieztatu zuen Marokok 2007an egindako autonomia proposamena zela Mendebaldeko Saharako gatazka konpontzeko aukerarik "serioena, sinesgarriena eta errealistena", Espainiak Mendebaldeko Sahararen subiranotasunarekiko izan duen jarrera historikoa aldatuz.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak ere, iazko urrian egindako azken bileran, Marokoren autonomia-plana irtenbide politiko bat negoziatzeko oinarri "bideragarriena eta errealistena" izatea babestu zuen, ebazpen horretan bertan saharar herriaren autodeterminazio printzipioari eusten zion arren.

Ez dago gaizki, baina egin dezagun erreferenduma sahararrek autonomia edo independentzia nahi duten erabakitzeko. Hori da irtenbide baketsurako bidea, eta hori da guk eskatzen duguna. Herritarrek autonomia bozkatzeko badute, guk errespetatuko dugu.



▼ **Mendebaldeko Sahara**

Goiko mapak erakusten duen moduan, Mendebaldeko Sahara bitan zatituta dago egun. Mapan zuriz ikusten dena Marokok okupatutako lurraldea da, eta marradun eremua Fronte Polisarioaren kontrolpean dagoena. Bien artean, gorritz, Marokok eraikitako harrisia, 2.000 kilometrokoa. Hegoaldean Guerguerat-eko pasabidea dago, 2020an su-etena haustea ekarri zuen puntu konfliktiboa. Aljerian Tinduf-eko kanpalekuak daude Saharatik 400 kilometroara.

2020ko urrian su-etena hautsi egin zen, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko Guerguerateko errepedea blokeatu zuten saharar zibilen aurka Marokok indar militarrez erantzun zuenean. Zein da egoera orain?

Marokok hautsi zuen su-etena gune desmilitarizatuan barnerratuz, eta ordutik gerran gaude berriz ere. Fronte Polisarioak Marokok harresian zehar dituen zenbait base militarren aurkako erasoak burutu ditu, eta Maroko droneak erabiltzen ari da Fronte Polisarioak kontrolatzen duen eremuan mugitzen den orori eraso egiteko. Komunikabideetan ez da ia ezer azaltzen, %99a Marokok erosita daudelako, eta Espainiari presio egiten diolako ezer ez esateko Saharako gatazkaren inguruan, baina gerra irekia dago eta erasoak etengabeak dira.

Saharar erradikalizatuak Sahel-go ISISen sartu direla dioten berriak zabaldu dira.

Marokok zabaldu ditako albisteak dira. Mali inbaditu berri dutenak ere Fronte Polisarioak omen

dira. Iran armekin laguntzen ari zaigula ere esaten ari da, baita Hizbula ere. Sahararrak Aljeriari kanpaleketara derrigortuta goazela ere esaten dute. Denak gezurrak dira. Eskerrak badiren gobernuek kontrolatzen ez dituzten sare sozialek, eta horiek esker munduak badaki zein den benetako errealitatea.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Beti dago itxaropena. Egunen batean irtenbide baketsua izango dugun esperantza. Ez da itxaropen bat bakarrik, uste sendo bat da eta hori lortu arte borrokatuko dugu. Gure helburua da bizitzan: egunen batean, gu edo gure seme-alabak, Mendebaldeko Saharara askatasunean itzuli ahal izatea.

Gustatuko litzazueke itzulzea?

Jakina. Libratzen bada, denok itzuliko gara, seguru. Baliabidez aberatsa den herrialdea gara, kostalde zoragarria duena. Nork ez du bizi nahi horrelako leku batean, zure banderapean, zure familiarekin? ■

Bakardadearen inguruko dekalogoia aurkeztu dute Debagoieneko udalek



'**Debagoiena Ehuntzen: Bakardadearen korapiloa askatu**' proiektuaren barruan landuriko dekalogoia aurkeztu dute Debagoieneko udalek. Eskualdeko ongizate zinegotziek aurkeztu dute asteon herritarrei zuzenduriko gida eta laguntza-tresna.

Zehatz esanda, **HARIAK** estrategiaren I. Ekintza Planaren (2022-2027) barruan dator dekalogoia, eta, besteak beste, eskualdeko herrien erronka eta ardurez jabetuta,

LIERNI ALTUBE MOIUA
Udaleko Ongizate batzordeko burua

■ Bakardadea ez da adin kontua, eta hura prebenitu edo arintzeko orduan esangura handia dute ekimen komunitarioek, hala nola, elkar zaintzari begirakoek

indarrak batzeko helburua du.

"Bakardadea ez da adin kontua, eta hura prebenitu edo arintzeko orduan, esangura handia dute ekimen

komunitarioek, hala nola, elkar zaintzari begirakoek. Garrantzitsua da horretarako bitartekoak eskaintzea. Horretara dator bakardadearen inguruko dekalogoia", azaldu du Lierni Altube Moiua Udaleko Ongizate batzordeburuak. Aurkeztutako dekalogoia etxez etxe banatu da Debagoieneko etxe guztietan, herritarrei tresna arin eta erabilgarri bat eskaintzeko. Herritarren parte-hartzetik jasotako 10 gomendio biltzen ditu gidak (ikus ondoko orrian):



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

BARKARDADEAREN INGURUKO DEKALOGOA

1. **HASIERATIK HASI:** Bizikidetzeta-arauak berreskuratu eta sustatu, agurtuz eta atsegina izanez.
2. **INGURUKO PERTSONEI BEGIRA EGON:** Bizilagunak nola dauden galdetu eta elkar ezagutzen lagundu.
3. **DAUZKAGUN HARREMANAK HOBETU:** Aurreiritziak alde batera utzi eta taldeak edo koadrilak ireki.
4. **LAGUNTZA PRAKTIKOA ESKAINI:** Erosketekin, mediku-kontsultekin edo tramiteekin lagundu.
5. **BESTEEI ENTZUN:** Irtenbide azkarrak eman gabe, besteei adierazten utzi eta ulertzen saiatu.
6. **ELKARRI LAGUNTZEKO HARREMANAK SUSTATU:** Boluntario gisa jardun edo laguntza eskatu.
7. **ZAURGARRITASUNAREN ESTIGMA APURTU:** Behar duguna normalizatu eta mina dagoenean isiltasuna onartu.
8. **BAKARDADEA ULERTU:** Bakardadea-zahartzaroa binomioa hautsi, gazteei ere eragiten baitie.
9. **PAUSU BAT EMAN:** Bakarrik dagoenari planak eskaini edota guk geuk laguntza eskatu.
10. **HERRIKO BIZITZAN PARTE HARTU:** Elkarreetan aktibo izan eta etorri berriei ongietorria eman.



"ZUK ZEIN PIEZA JARRIKO DUZU?"

Agerraldia amaitzeko, udal ordezkariak gogoetarako galdera bat luzatu diete herritar guztiei: "Bakardadearen korapiloa askatzeko, zein pieza jarriko duzu zuk?". Zentzu horretan, esan dute orain arte egindako lanetek bakardadea "saihestezina" dela erakutsi badute ere, "prebenitu eta arindu" egin daitekeela, "baldin eta komunitatea mobilizatzen bada, topaguneak sortzen badira, une zailak igarotzen dituztenei laguntzen bazaie eta pertsonen autonomia eta ongizate emozionala zaintzen badira". Gaineratu dute bakardadea gai kolektiboa den heinean, erantzunak ere halakoa behar duela izan.

Jubilatuen Eguna ekainaren 21ean ospatuko da

Pake Leku elkarteak antolatuta, ekainaren 21ean ospatuko da herriko Jubilatuen Eguna. Eguerdiko 12:00etako mezaren ostean egingo da omenaldi ekitaldia San Migel parrokian, eta jarraian bazkaria klaustroan.

ERAKUSKETA ETA BINGO BEREZIA

Ekainaren 15etik 18ra Pake Lekuko eskulan tailerretan egindako lanak egongo dira ikusgai elkarteko tabernan (17:00-19:00). Bestalde, ekainaren 25ean Bingo saio berezia egingo da Pake Lekun, 17:00etan.

Gure Zirkuaren emanaldi berezia



Udalak eta Gure Zirkuak adostutako ekimenari esker, San Martin egoitzako egoiliarrek zirkua bisitatu tea artisten lana bertatik beratara ikusteko eta beraiekin solasean aritzeko aukera izan zuten. Gororatu, ekainaren 5 eta 6an izango direla azken emanaldiak Oñatin. Gure Zirkuko familia oso pozik dago Oñatin izan duen harrerarekin.

ONNERA GROUP
United for professional progress.

FAGOR asber effcold edenox DDM DANUBE Primer

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Etxebizitzaren inguruko eztabidak seriotasuna behar du

Marijo Etxegoien Arzuaga, Oñatiko EAJ-PNV

Azken Kontzejupetiken alkateak eta Hirigintza zinegotziak etxebizitzaren inguruan egindako adierazpenek zenbait argipen behar dituzte. Batetik, 2021 eta 2023 artean Oñatin 657 babes ofizialeko etxebizitza eraiki direla diote, eta begi bistakoa da ez dela horrela; bestetik, etxebizitza horiek azken udal politiken ondorio balira bezala aurkeztu dira, baina errealitatea oso bestelakoa da.

Bidebarrieta, Ugarkalde, San Martin, Kasablanka, Kurtideria edota Kurtzekua bezalako sustapenak ez dira hutsetik sortutako proiektuak. Aurreko EAJ-PNVren udal gobernuek urteetan egindako plangintza urbanistikoaren eta garapen lanen emaitza dira. Horrek erakusten du etxebizitza politika sendoek etorkizunari begirako ikuspegia eta erabaki ausartak eskatzen dituztela, EAJ-PNVren gobernuek egin zuten bezala.

Etxebizitzaren arloan administrazio guztiek dute ardura, baina udalaren zeregina funtsezkoa da: lurzorua planifikatzea. Lurrik gabe ezin da etxebizitzarik eraiki, eta plangintzarik gabe ez dago etorkizuneko etxebizitzarik.

Hor dago, hain zuzen ere, gaur egungo udal gobernuaren erantzukizuna ere. Bilduk 15 urte daramatza udal gobernuan, eta 9 urte HAPOaren aldaketa tramitatzen. Denbora horretan etxebizitzaren arazoak ez du hobera egin; alderantziz, gazte askorentzat eta familia askorentzat etxebizitza eskuratzea gero eta zailagoa bihurtu da.

Gainera, proposatu diren zenbait erabakik zalantzak sortzen dituzte. Garaiko lorategien beheko aldea (Lazarraga) desklasifikatu nahi da, nahiz eta bertan etxebizitzak epe laburragoan garatzeko aukera egon. Alderantziz, Eroski edo Cegasa bezalako industria eremu aktiboak etxebizitzarako aurreikusten dira, jakinda garapen horiek oso epe luzera joango lirakekeela, gauzatzea iritsiko balira. Eta garapen horiek kontzertazio pribatuaren bidez egitea planteatzen da,

sustatzaile pribatuaren menpe utzita.

Gaur ezagutzen dugun Oñati ez da hutsetik sortu. Horregatik beharrezkoa da egindakoa aitortzea, eta baita etorkizunari begira lanean jartzea ere. Izan ere, gaur hartzen ez diren erabakiek zuzenean baldintzatuko dituzte gaurko eta biharko gazteen, familien eta herritarren aukerak.

Zuzenketa

Maiatzeko zenbakian datu bat oker eman genuen. Etxebizitza Planaren inguruko elkarrizketan (9. orria) ondorengo adierazpena argitaratu genuen elkarrizketatuaren hitzetan: "2021 eta 2023 urte bitartean babestutako 657 etxebizitza eraiki ziren Oñatin". Informazioa ez da zuzena, 2021 azaldu baitzen 2011 behar zuen lekuan.

>> OHAR ETA DEIALDIAK <<

INAUSKETA-HONDARRAK ERRETZEARI BURUZ

Irakurle batek galdera hau luzatu digu: "Oñatiko inguruko baratzen uztondoa (landareen hondarrak) eta inausketa-hondarrak erretzeari buruzko araudia argitaratzea oso ondo egongo litzateke, batez ere etxez inguratuta dauden baratzei buruzkoa, zeren sua egiteak kea sortzen baitu. Baimena eskatu behar da? Abisatzea nahikoa da? Asteburuetan posible da sua egitea? Ezjakintasun zabalago dago horren inguruan.

1987koen KINTTADIA

Irailaren 5ean izango da, Oñatin. Bazkaria: Torre Zumeltzegi jatetxean. 1987an jaioetakoa baldin bazara, ez dudau eta animau! Informazio gehiagorik: kinttuak87@gmail.com

1966koen KINTTADIA

Irailaren 5ean egingo dute kinttadia 1966an jaiotakoek (aurten 60 urte). Bazkaria Txopekuan izango da. Ondoren dantza egiteko aukera egongo da. Kinttadara joateko asmoa dutenek 60€ aurreratu behar dute Laboral Kutxako 3035 0170 55 1700039794 kontuan, izen-abizenak jarri, uztailearen 20a baino lehen. Autobusa egongo da Txopekuako joan-etorria egiteko. Animatu!

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxe: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Aprobetxatu uda C1 titulua eskuratzeko

HABEren iraileko deialdirako prestatzeko ikastaroa antolatu du udal euskaltegiak



ZERTARAKO C1 TITULUA

Gaur egunean Euskal Herrian administrazio lanpostu bat lortzeko maila bateko edo besteko euskara-gaitasuna egiaztatzea eskatzen da, besteak beste, irakaskuntzan, Osakidetzan, Ertzaintzan. Administrazioetik kanpoko lanpostu askotan ere, derrigorrezkoa ez bada ere, eskatu edo balioetsi egiten da. Beraz, C1 tituluak balio funtzional handia du gure gizartean lanpostu bat eskuratzeari begira.

IRAILEKO DEIALDIA

Eusko Jaurlaritzako HABE erakundeak ikasturtean zehar euskaltegi batean ikasten duten ikasleentzat bi deialdi prestatzen ditu —deialdi itxiak deitzen zaienak—, bata maiatzean eta bestea irailean. Ikastaro honetan HABEko iraileko deialdira joateko prestatuko da ikaslea.

IKASTAROA

- EKAINAK 22 - UZTAILAK 17
- ASTELEHENETIK OSTIRALERA 8:30-13:00
- PREZIOA: 132,50€ (Langabezian egon eta subsidiorik jasotzen ez dutenentzat, dohainik; jasotzen dutenek matrikula hobarritua izango dute).

MATRIKULA EPEA

- EKAINAK 1-15, udal euskaltegian (ELTZIA, Larraña auzoa, 16 / 943 78 24 96).
- Taldea osatzeko gutxinez 8 lagun beharko dira.



Udako

C1 mailako ikastaroa goizetan
ekainaren 22tik uztailaren 17ra

Zatoz!

Matrikula epea: ekainaren 1etik 15era,
udal euskaltegian.
ELTZIA, Larraña auzoa, 16 (943 78 24 96)

BEHITA LARRAKOETXEA • Udal Euskaltegia • OÑATI

OÑATI
dabilen herria



GRAFFITI TAILERRA GAZTELEKUAN

Apirila eta maiatza artean, Gaztelekuan Graffiti Tailerra izan dugu. **Iban Urreta 'Mutiko Kristal'** muralista aretxabaletarraren eskutik. Proiektu honetan parte hartu duten sei nerabeekin, barne-ezagutza eta adierazpena, sormena, talde-pertenentzia, teknika... etab. landu ditugu. Taldetxoak **Factory Kids** bezala sinatu du beraien lehen lana eta kideek, aurrerantzean ere, horrelako lanak egiteko prestutasuna agertu dute.

Mutiko Kristal: "Nerabeen artean adierazpen behar ezberdinak egoten dira, eta proiektu honen bitartez, muralismoarekin kasu honetan, behar horri koloretako erantzun bar eskaini diogu..."

KunXenko (Parte hartu duen gazte bat): "Kaixo guztioi! Oñatin bizi den Errusiako graffiti writer bat naiz! Eskerrik asko handi bat esan nahi diot Mutiko Kristal-i, benetako graffitiak erakutsi dizkigulako! Indar bateratu batekin mural oso eder bat egin dugu!"

Azken urteotan Gaztelekua eta Udaltzaingoaren eraikinen arteko kaletxo ainubeari kolorea eta gure gaztetxoaren zigilua jartzen ari gatzazkio. Lau paretetatik hiru Arte-Udalekuetako bukaera proiektu bezala planteatu ditugu, eta egoki iruditu ziztaigun, oraindik zuriz geratzen zen pareta bakarra gure nerabeen lan batekin osatzea.

Aukera dugun aldiro, era batera edo bestera, **gure gaztetxoei ingurune seguruak** eskaini edo beraiekin eraikitzea zein garrantzitsua den aldarrikatzen saiatzen gara. Mugikor eta pantailen gaiarekin, botere harremanek sortzen dituzten egoerekin, guraso, heldu, hezitzaile... bezala kontutan hartu beharreko gaiekin, etab. Eta espazio fisiko bat ingurune seguru izan dadin, nahitaezkoa da gazteek espazioarekiko pertenezia sentsazioa izatea, beraien alea, zigilua, kolorea, argazkiak eta abar izatea; gazteena, beraiena dela sentitzea. Horretarako lanean jarraituko dugu.

Haur eta gazteria saileko hezitzaile taldea.



» UDALEKO GAZTERIA BATZORDEAREN ZERBITZU BERRIA

Gazte aholkularitza Psikologikoa

- 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua. Dohainik.
- San Juan kaleko 5 zenbakidun lokalean
- Ostegunero, 16:00 -18:00 (aurrez txanda hartuta)
- 688 815 351 / gazteaholkularitza@onati.eus



San Juan
kaleko 5
zenbakiko
lokalean
ematen da
zerbitzua

Hemen dira enarak eta sorbeltzak!

Martxoan ingurutik geurean dira enarak, elaiak, kulentriñak, boletxikoak! Baita sorbeltzak, kanpantxoriak, meletxikoak, txirritxoriak ere! Hainbeste izen eta gehiago dituzte honen maite ditugun txori hauek.

Udaberri hasierarako iristen dira Afrikatik gure herri, baserri, atari edota teilatupetara. Bertan txitatzen dute, lokatzez egindako habiatan (enarek) edota eraikinetako zirrikituetan (sorbeltzek), eta hemen geldituko dira udazkenera arte. Intsektu hegalariz elikatzen dira, eta, bitartean, gure bazterrak hegaldi azkar bezain ikusgarriekin eta garrasi bereziekin alaitzen dituzte.

Euli eta eltxoak dira hegazti txiki hauen dietako elikagai nagusi, eta, hala, intsektu horien populazioen kontrol naturala egiten dute. Ordu batean 60 intsektu inguru jan ditzake enara batek, urtean 310.250 euli-eltxo!



Ordu batean 60 intsektu inguru jan ditzake enara batek, urtean 310.250 euli-eltxo!

Oñatin hiru enara espezie aurki genitzake. Handiena **enara arrunta** da; gure baserri eta kortatan habia egiten duena. **Enara azpizuriak** hiritarragoak dira, edozein eraikinetan egiten baitute habia; erdigunean erraz ikus ditzakegu. **Haitz-enara**, ordea, gutzit menditarra da, eta harkaiztietan egiten du habia, normalean. Oñatin ohikoak ez izan arren, Euskal Herrian enara ipurgorria eta uholde-enara ere topa daitezke. **Uhalde-enara**, denetan txikiena, Araba eta Nafarroako ibai handien inguruan bizi da. **Enara ipurgorria**, aldiz, kolonizazio berriko espeziea da Euskadin, eskualde mediterraneokoa izaki.

Eta, nola ez, **sorbeltz arruntak** ere hemen dira! Aurrekoen aldean desberdinena da, beste familia batekoa baita. Zalantzarik gabe, hegazti guztietatik airetikoak dira sorbeltzak; izan ere, ia bizitza osoa pasatzen dute airean. Ugalketa garaian bakarrik pausatzen dira, inkubaziorako eta txitak gizentzeko, baina jan, atsedean hartu eta kopulatu hegaldian egiten dute! A zer gaitasuna!

Naturguneen eraldaketen, obren, arkitektura-berrikuntzen eta intsektuak gutxitzearen ondorioz, hegazti hauen habiak galtzen ari direla jakina da. Enarak eta sorbeltzak espezie babestuak izanik, errespeta ditzagun eta jarrai dezagun luzaroan elkarbizitzen!

EKAINEKO EGITARAUJA: HERRITARREN ZIENTZIA

ENARAK ETA SORBELTZAK EZAGUTZEN / Ekainak 16, asteartea


IMANOL BIAINEN ESKUTIK. NATUR ESKOLAN, 17:30

Hasteko, enara eta sorbeltzen inguruko informazioa jasoko dugu, eta, ostean, kalera irten eta espezieen eta habien indentifikazioari ekingo diogu.

Zein da herritarren zientzia jarduera honen helburua?

Oñatin dauden enara eta sorbeltzen habiak kartografiatu eta dokumentatzea, hegazti horien kontserbaziorako baliagarri izango den informazioa jasotzeko.





Egun beteko festa ARRANOAITZEN ekainaren 6an

Azken urteetako ohiturari eutsiz, egun-pasa ederra egiteko aukera egongo da Aurrekomendin ekainaren 6an. Egun osoko egitaraua prestatu dute. Egurdiko 12:00etatik aurrera **Haur Parkea** egongo da, haurren jostagarri, eta taberna zerbitzua eta paella jana ere egongo da bertaraten direnentzat.

Aurten, gainera, **Potx magoaren** ikuskizuna egongo da, eta musika eskaintza zabala izango da egunean zehar: Oñatiko **Zentzu Okerra** eta **Beau** taldeez gain, **Trigger** (Eñaut Zubizarreta) biolontxelo jotzailea, musika elektronikoa egiten duen **Hyperbolika** bikotea eta errumba flamenkoa euskal sustraiekin uztartzen dituen **Jumelage** talde nafarra ere bertan izango dira. Edalontzi berrerabilgarriak Arrano tabernan daude eskuragarri 2 eurotan. Gerturatuko den jende kopurua kalkulatzeko laguntzeko dira edalontziak. Animatu!

Ortuzabala baratze ekologikoa, errelebo bila

2011z geroztik Oñatin martxan dagoen Ortuzabala baratze ekologikoa pertsona bila ari da 2027ko urtarriletik aurrera proiektuarekin aurrera jarraitzeko. Sasoiko barazkiak modu agroekologikoan ekoizten dituen nekazaritza kolektiboa da Ortuzabala. Taldean egiten dute lan, eta astero saskiak banatzen dituzte. Larunbatetako azokan ere egoten dira eta, horrez gain, herriko denda eta jatetxeei ere saltzen dizkiete barazkiak.

Martxan dagoen eta oinarri sendoa duen proiektua eskaintzen dute. Dagoeneko garatutako kudeaketa eredua (egokitzeko aukera duena), eta kontsumo-sare eta komunitatearen babesa. Baratze ekologiko batean modu kolektiboan lan egiteko gogoia duten pertsonak bilatzen

dituzte. Agroekologia kolektiboarekiko interesa dutenak. Baratzean esperientzia izatea baloratuko da (ez da ezinbestekoa). Proiektua bertatik bertara bisitatu eta



ezagutzeko aukera: asteartetik ostiralera, 10:00-14:00. Deitu 722 67 45 35 telefono zenbakira, edo idatzi ortuzabala@gmail.com helbidera.

Elikagaien bilketa nagusia egingo da ekainaren 5-6an

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak antolatuta, udaberriko bilketa nagusia egingo da ekainaren 5 eta 6an herriko saltokietan. Garbantzuak, babak, dilistak, olioak, pasta, arraina kontserban, tomateak kontserban, fardelak... eta beste hainbat produktu eman daitezke, edota dohaintza ekonomikoa ere egin daiteke kutxatik pasatzerakoan. Egun horietan elikagaiak jaso eta sailkatzen laguntzeko jendea behar du Elikagaien Bankuak. Laguntzeko prest bazaude, jarri harremanetan: 943 76 21 90 / bergara@bancoalimentosgipuzkoa.org.



Ate irekiak Gipuzkoako artxibo historikoetan

Artxiboen Nazioarteko Egunaren harira, ate irekien jardunak ospatuko dira Foru Aldundiko artxibo historikoetan, eta horren harira bisita gidatuak egingo dira ekainaren 11n eta 12an. Hala, Oñatin egoitza duen Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan goizeko 11:00etan (euskaraz eta gaztelaniaz) eta arratsaldeko 17:00etan (euskaraz eta gaztelaniaz) egingo dira bisitak. Eta Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorrean goizeko 10:00etan (gaztelera), 12:00etan (euskaraz), 16:00etan (gaztelaniaz) eta 17:30etan (euskaraz) izango dira bisitak. Izena emateko: 943415060 / ahpg-gpah@gipuzkoa.eus. Artxiboen funtzionamendua eta artxibo-ondarera herritarrei erakustea da ekitaldi hauen helburua.



Ekainaren 11n eta 12an egingo dira bisita gidatuak

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✦ Heriotza
- ✦ Autoak
- ✦ Bizitza

- ✦ Istripuak
- ✦ Ontziak
- ✦ Osasuna

- ✦ Etxebizitza
- ✦ Aurrezkitza
- ✦ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, beheak
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

56 ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?

500 Mb-eko ZUNTZA

+ 2 MUGIKOR-LINEA

34,90€/HIL
BEZa barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA dendara, kontrata ezazu zuntza + mugikor linea bat eta aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



[BEZa barne]. Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Ekainaren 1etik ekainaren 30era, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatuzko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existenziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO



Ohorezko Erregional mailara bueltan da Aloña Mendi

FUTBOLA Denboraldia ederra borobiltzea lortu ez badu ere –Gorengo mailako txapeldunen arteko finala galdu egin zuen Hondarribiaren aurka 3-1, luzapenean– Aloña Mendik Gipuzkoako Gorengo mailako 'B' multzoko liga irabazi du eta, horrenbestez, iaz galdutako Gorengo Erregional mailan egongo da berriz ere hurrengo urtean.

Unai Garaik zuzendu duen taldeak denboraldi bikaina osatu du 23 partida irabazi, 3 berdindu eta 4 galduta –77 gol alde eta 15 besterik ez aurka–, eta lan horrek saria izan du, noski. Azken aurreko jardunaldian ziurtatu zuen Aloña Mendik igoera, Azkoagainen 7-0 irabazita Alegiko Intxurre taldeari, eta, horrenbestez, zale guztiakin batera ospatu ahal izan zuten igoera.

Gauzak naturaltasunez egitea izan da arrakastaren gakoa, Unai Garaik entrenatzailearen ustez. "Lagun talde bat izan gara, astetik asterako lana naturaltasunez egiten saiatu dena, guztiok bat eginda, helburu zehatzik ipini barik, eta



UNAI GARAI
Entrenatzailea

Asteroko lana naturaltasunez egiten saiatu gara, eta hori izan da hona ekarri gaituena

denboraldia, baina edonori lanak emango dizkiogula, hori seguru".

horrek ekarri gaitu hona". Aurreneko denboraldia zuen Garaik talde nagusiaren aulkitxoan, eta lehen urtean igoera lortzea oso berezia izan da. "Ziurgabetasun handiarekin hartu nuen taldea, lehen urtea zelako, baina konfiantzazko jendearekin inguratu nintzen –Julen, Joseba, Roberto, Jokin, Unax eta Igotz– eta denon artean errazagoa izan da. Pozik nago, Aloña Mendi bere lekuan, Ohorezko Erregional mailan, egongo delako berriz ere. Hortik gora datorren guztia ongi-etorria izango da, baina hortik behera ez dugu begiraketarik be gura".

Hurrengo denboraldian jarraitu egingo du Garaik, lantalde osoarekin batera, eta baikorra da etorkizunera begira. "Ohorezko Erregionalean egoteko maila soberan dauka talde honek; ilusioa eta indarra ere bai. Ez da samurra izango hurrengo



Euskal ligan jarraituko du Aloña Mendik

ARETO FUTBOLA Iraipe-Conbroker Aloña Mendiko areto futbol talde nagusiak helburua soberan beteta amaitu du denboraldia. Gogoratu, iaz lortu zuela Euskal Ligara igotzea eta, hasierako beldur edo kezka uxatuta, estuasun handi barik lortu dute mailari eustea, 9. postuan sailkatuta –16 talde–. Hurrengo denboraldira begira pare bat baja izango dituzte, baina bloke ia osoak jarraituko du eta ilusio handia dute berriz ere Euskadi mailan lehiatzeko.



Bi domina karatean

Malen Lakak, Alebin mailan, eta Eider Arrizabalagak, Infantiletan, domina bana lortu dute Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan.

TXIRRINDULARITZA

Aloña Mendi-Ulma taldeko kadete mailako Enzo Elizburuk denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen maiatzaren 31n Murietan (Nafarroa) jokaturako XXXIX. Luis Meoqui memorialean.

TORREAUZOKO KROSA

ekainaren 28an

herrikrosa.eus webgunean
eman behar da izena



2025eko podiuma

KROSA San Pedro egun bezperan izango da aurten Torreazuko krosa, 27.a, ohiko ibilbidean –Etxe Aundi eta Olate arteko joan-etorria (7,5 km)–. Izen-ematea zabalik dago *www.herrikrosa.eus* webgunean. Ekainaren 26ko gaueko 22:00ak arte 12€ balioko du, eta hortik aurrera, lasterketa eguneko 09:00ak arte 18€ra igoko da. Plazak mugatuak dira –300 korrikalari; dagoeneko 182 daude izena emanda– eta gogoratu azken bi urteetan lasterketa egunaren aurretik agortu direla dortsalak. Beraz, adi ibili.

Urtero legez, dei edo gonbite berezia luzatzen zaie emakumeei lasterketan parte hartzera –dagoeneko 83k eman dute izena–, horixe baita *Abixaran* antolatzaile taldekoen helburuetako bat, alegia, emakumeen parte hartzea urtetik urtera areagotzea. Antolatzaileen beste helburuetako bat kirolaren balio integratzailea aldarrikatzea da eta, ildo horretan, aurten ere mugikortasuna mugatua duten kirolariek ere parte hartu ahal izango dute lasterketan, esku-bizikletan nahiz aulki gurpildunetan.

Gogoratu,, bestalde, taldeka ere eman daitekeela izena –gutxienez 3 lagun behar dira taldea osatzeko–, eta amaieran opariak zozkatu ohi direla izena ematen duten taldeen artean.

Lasterketa goizko 10:30etan hasiko da –mugikortasun mugatua dutenena 10:00etan–, eta amaieran, ohi bezala, luntxa eta opari zozketa egingo da, sari banaketarekin batera.

Gipuzkoako eskubaloï federazioaren gala nagusia Oñatin egingo da

ESKUBALOIA Aurten 50 urte betetzen dituen Aloña Mendiko Eskubaloï sailari keinu eginez, Gipuzkoako Federazioak Oñatin ospatuko du denboraldi amaierako gala nagusia, ekainaren 18an, Santa Ana antzokian (18:00). Amaitu berri den denboraldian nabarmendu diren jokalarï eta klubak sarituko dituzte bertan, eta ziur gaude Aloña Mendirentzat ere egongo dela aitortza bereziren bat. Ekitaldian parte hartzeko gonbidapena behar da.

KOPA TXAPELDUNAK. Gazte mailako nesken taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi du finalean Elgoibarri gailenduta (14-24).



Altzania eta Aralar mendikateak lotuko dituzte Aloña Mendiren ekaineko irteeran

MENDI IRTEERA GR-283 IDIAZABAL GAZTAREN IBILBIDEko 5. etapa jarraituz, Etxegaraten hasi eta Lizarrustin amaituko da Aloña Mendik ekainerako antolatu duen mendi ibilaldia, Altzania eta Aralar mendikateak lotuz (17 km / +800m). Ibilbide gorabeheratsua da, tontor handirik gabe. Ekainaren 21ean izango da irteera, eta izen-ematea, berriz, ekainaren 11tik 18ra, *alonamendi-mendi@gmail.com* helbidean (50 leku). Irteera, goizeko 7etan postetxe parean.

ZUBILLAGAKO MENDI MARTXA Zubillagako III. Mendi Martxa egingo da ekainaren 27an, auzoko jai egitarauaren baitan. Zailtasun maila baxu-ertainekoa da ibilbidea (15,7 km. / +619 m.). Partaide guztiek opari eder bana jasoko dute eta amaieran luntxa egongo da. Izen-ematea (12€) Txokolateixan, Ametsen, Arranon eta QR bidez egin daiteke, ekainaren 21a baino lehen. Plaza mugatuak –300 pertsona–.



Zuzendaritza berria aurkeztu du Aloña Mendik

Iñaki Mendarozketa buru duen bost laguneko taldeak hartu du Aloña Mendi kirol elkartea zuzentzeko ardura, kargu horretan 40 urte luzez jardun duen Anton Inzaren, eta azken urteotan bere laguntzaile izan diren Angel Barrera eta Resu Muruaren lekukoa hartuz. Mendarozketaekin batera, Juan Luis Guridi (lehendakari ordea), Asier Guridi (kirol lehendakari ordea), Ane Billar (idazkaria eta diruzaina) eta Itziar Usandizagak (idazkari ordea) osatzen dute zuzendaritza talde berria. Guztiek gorai patu eta eskertu dute Anton Inzak urte luzez egindako lan bikaina.

Estatu mailako ahozko narratzaileek Oñatin egingo dituzte literatura eta ahozkotasun jardunaldiak

Tartean, herritar guztiei irekitako lau saio egongo dira



EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 2RA
EGINGO DIRA JARDUNALDIAK, OÑATIKO
UDALAREN LAGUNTZAREKIN

Estatu mailako ahozko narratzaile profesionalen elkarteak (AEDA) antolatuta, Oñatiko Udalaren laguntzarekin, XI Literatura eta Ahozkotasun Jardunaldiak egingo dira geurean, ekainaren 29tik uztailaren 2ra. Askotariko tailer eta hitzaldiak egingo dituzte eta, tartean, nahi duten herritar guztiei irekitako lau saio ere antolatu dituzte –ikusitako egitaraua ondoko orrian–, Oñatiko udal liburutegiarekin elkarlanean.

Ahozko narratzaileentzako buruz hitz egin eta ikasteko aukera ezin hobea egongo da Oñatin, Pello Añorga, Itziar Rekalde, Estrella Escrina edo Galtzagorri elkarte bezalako adituen eskutik. Inprobisazioa lantzeko aukera ere egongo da, Juan Gambaren gidaritzapean, eta baita Clown ikastaroak ere, Maite Guevararekin.

Hizlarien artean Idoia Etxebarria oñatiarra ere izango da, 'Euskal Herriko Ahotsak' proiektuaren nondik norakoak azaltzen.

Kontalari profesionali zuzendutako ekitaldiez gain, publiko orokorrari zuzendutako lau kontaketa saio ere egongo dira, Irene Reina, Dorleta Kortazar eta Diego Reinfeldten eskutik. Saio elkarrizketatuak izango dira eta, beraz, amaieran sortzaileekin solasean aritzeko aukera egongo da.

AEDA elkarteak

AEDA elkarteak 2010ean sortu zen, estatu mailan narratzaile bezala lan egiten duten profesionalak batu, ahots komuna artikulatu, eta guztien onura lortzeko helburuarekin. Etengabeko prestakuntzan sakontzeaz gain, kontalarien ofizioa behar eta merezi bezala baloratua izan dadin ahalegintzen da elkarteak. Jardunaldiei buruzko informazio guztia eta egitarau osoa <https://narracionoral.es> webgunean kontsulta daiteke.

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Ultzegein kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

ARANBURU
ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK
LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

SAIO IREKIAK

'RAYANAS' SAIO ELKARRIZKETATUA

Ekainak 29, Santa Ana antzokia, 18:30



"Nacía pa cantá y contá", halaxe definitzen du bere burua **Irene Reinak**, "folklorearen erreginak". Rayanas ikuskizunean bazterretan bizi diren emakume anonimoei ematen die hitza. La Rayaren (Espainia eta Portugal arteko muga) eta guda-lurren zein kontrabandoaren historia da, emakumeen bizipenetatik kontatua.

'80 ABUELAS' SAIO ELKARRIZKETATUA

Ekainak 30, Goiko Benta ostatuan, 19:00



80 amandre behar omen dira aitzin aroa orainarekin lortzeko, Oteizak zioenez. Bada, Dorleta Kortazarrek 4 amandre nahikoa izan ditu munduan bere txokoa aurkitzeko. Ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi zuten emakumeen istorioak kontatuko ditu. (Gaztelaniaz).

'GURE GALBAHETIK' NARRAZIO SAIOA

Uztailak 1, Lazarraga parkean, 19:00



Dorleta Kortazar eskoriatzarrak 'Gure galbahetik' izeneko ahozko narrazio saioa eskainiko du, helduentzat. Ipuin tradizionalak, berak sorturikoak edota egile berrienak kontatzen ditu Kortazarrek, bere ohiko estilo gozo eta xamurrean, hizkuntza garbi eta zainduan beti ere.

'LA ESPADA BAJO LA ALMOHADA'

Uztailak 1, Goiko Benta ostatuan, 19:30



Tenerifen bizi den Diego Reinfeld ahozko narratzaileak helduentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Ipuin tradizionalak eta berak sorturiko istorioak kontatzen ditu, bere ahotsa eta ikusleen irudimena lagun. Amaieran sortzailearekin solasean aritzeko aukera egongo da.



Trikitixa Egunerako irudia aukeratzeko lehiaketa antolatu du Lizargarate Trikitizale elkarteak

Ekainak 25, lanak aurkezteko azken eguna

2027ko apirilaren 24an Oñatin ospatuko da Debagoieneko Trikitixa Eguna eta, dagoeneko, prestaketa lanetan hasita daude Lizargarate Trikitizale Elkarteko kideak. Hala, egun horretan erabiliko den logo edo irudia sortzeko lehiaketa antolatu dute.

BALDINTZAK

Logoan 'XXII. Trikitixa Eguna' agertu beharko da, edo, bestela, **2027** urtea. Gainera, **trikitixa eta panderoa** ere agertu beharko dira, edo hauen erreferentziaren bat.

Logoa kamisetatan ere agertuko denez, kamisetako zein tokitan joango den zehaztea komeni da. Garrantzitsua da kontuan hartzea trikitixak kamisetaren aurrealdea estali ohi duela.

Edozein oñatiarrek, gazte zein heldu, parte har dezake lehiaketan. Irabazlearentzako saria egongo da. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 25a da, **lizargarateelkatea@gmail.com** helbidera bidalita.

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

● OÑABIKE
est. 95

UDAN KANTARI

Ikasturte amaierako kontzertua emango dute Ganbara Kantu Eskolako taldeek. Ekainaren 14an, Santa Ana antzokian, 19:00

Ganbara Kantu Eskolako taldeek ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute ekainaren 14an, Santa Anan, 19:00etan. **Ganbara Txiki** abesbatzak, **Hasiberriak** taldeak eta **Ikastetxeak Kantari** ekimeneko taldeek –Urgain eta Txantxiku ikastolako abesbatzak– parte hartuko dute, Aitor Biain-Bidarte eta Nerea Parraren zuzendaritzapean. Iñaki Gezala piano-jolearen laguntza izango dute. Askotariko musika entzuteko aukera egongo da, baina euskal musikak izango du protagonismo berezia. Besteak beste, En Tol Sarmiento (*Sumendiak*), Zetak (*Eguzkilore*) edota Idoia Asurmendiren (*Viejo Refranero*) kantak abestuko dituzte. Amaieran, guztiak batera *Zulu Canon* eta *Pizza Hut* abestuko dituzte. Sarrerak (5€) Txokolateixan eta www.oñati.eus.



Idoia Asurmendi, ETS eta Zetak bezalako taldeen kantak abestuko dituzte



Matrikula epea zabalik Musika Eskolan

Ekainaren 10era arte dago Zabalik Jose de Azpiazu musika eskolan 2026-2027 ikasturterako aurre-matrikula epea <https://azpiazu.inika.net/inika/preinscripcion> web-gunean. Bi urtetik aurrera, adin muga barik eman daiteke izena. Informazio gehiago 943 78 31 74 zenbakian.

Mozarten bi obra handi joko ditu Aequus orkestrak

Hitzordu berezia izango du Ganbara Faktoriaren baitan sortutako Aequus Ensemble orkestrak ekainaren 27an Beasainen. Bertako Loinatz abesbatzaren 40. urteurrenaren harira kontzertu sinfoniko-korala eskainiko dute Aequus orkestrak eta Loinatz abesbatzak, Aitor Biain-Bidarte eta Aitor Garitano zuzendarien gidaritzapean.

Wolfgang Amadeus Mozarten bi obra handi interpretatuko dituzte: *Coronation Mass KV 317* (Koronazio Meza), bate-tik, eta *Vesperae Solennes de Confessore KV 339*, bestetik. Orkestra eta abesbatzaz gain, Euskal Herriko izen handiko bakarlariak ere abestuko dute: Ana Otxoa sopranoa, Lucía Gómez mezzosopranoa, Josu Cabrero tenorra, eta Jesús García Aréjula baritonoa.

Kontzertua Andre Maria Zeruratuen elizan izango da, 19:30etan hasita. Sarrerak (10€) Mirentxu liburudendan, aurrez, edo takilan bertan eskuratu ahal izango dira.



Ekainaren 27an izango da kontzertua, Beasainen

Eklipsea hizketagai

Hainbesteko ikusmina eragin duen abuztuaren 12ko eguzki-eklipsearen atarian, 'Eklipseak eta asmakizunak: eguzkiaren hitzalean' hitzaldia eskainiko dute Silvia Bonoli eta Mikel Falxa astrofisikariek Bergaran, Kutxa Fundaziok eta Donostia International Physics Center-ek antolatuta. Ekainaren 11n izango da hitzaldia, Bergarako Seminarixoan, 18:30etan.

IGOTZ

Zerbitzuak

Igotz Ugarte Larreta
Mug.: 676257120 • 639658046
Email: igotzugarte92@gmail.com

**Oliba olio birjina
estra ekologikoa**
Aceite oliva virgen
extra ecológico

15 l.

105 €

Eskaera egin eta etxera banatzen da

Oñatiko historia, musikaren bidez

'Oñati Gure Herria' ikuskizun berezia eskainiko du Ganbara Faktoriak ekainaren 26an **Zumeltzegi dorrean**

'Udako Gauak-2026' egitasmoaren baitan, Oñatiko historia, memoria eta nortasuna ardatz izango dituen ikuskizun berezia eskainiko du Ganbara Faktoriak ekainaren 26an, Torre Zumeltzegi hotelaren kanpoaldean, gaueko 22:30etan.

'Oñati, Gure Herria' du izenburua ikuskizunak eta 75 minutuko bidaia izango da, musika, hitz eta irudi artean, Oñatiko arima eta historian barrena; jentilen kondairak, Arantzazuren sorrera, gerrate karlistak, industrializazioa, auzoetako bizimodua, herriaren memoria kolektiboa...

Ganbara Abesbatza eta Hots Abesbatza izango dira protagonista nagusiak, Amaia Zipitria piano-jolearen zuzeneko musikarekin eta Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean. Ikuskizuna ardaztuko duten testu edo hitzak ere Aitorrek berak sortutakoak dira.

'Oñati Gure Herria' ez da kontzertu hutsa izago; herri baten memoria, emozioa eta nortasuna musikaren bidez bizitzeko esperientzia kolektiboa baizik

ahal izango da Zumeltzegi Torreko horman, Oñatiko irudi historiko, paisaia eta artxiboko material ezberdina proiektatuz.

LAU ESTREINALDI

Ikuskizunean zehar emanaldi honetarako preseski sortutako lau obra estreinatuko dituzte Ganbara eta Hots abesbatzek: Junkal Guerrero andoaindarrak konposatutako 'Ate bat igaro ostean' eta 'Ontzaz ontza' abestiak, batetik, eta Iker Gonzalez zumaiarrak idatzitako 'Bada herri bat' eta 'Trostan' kantak, bestetik. Josu Zubia oñatiarrak idatzi ditu lau kanta hauetako testuak.

Emanaldia dohainik izango da eta antolatzaileek bertara oinez joatea gomendatzen dute, irisgarritasuna eta giroa egokia bermatzeko.

Ikuskizunak ibilbide emozional eta kronologikoa egingo du Oñatiko historian barrena. Bloke bakoitzean abesti bat entzuteko aukera egongo da –ikusitako egitaraua–, eta emanaldian zehar Arri Iraetak prestaturiko ikus-entzunezkoa ikusi



EGITARAUA

BLOKEA 01: HARRIAN IDATZIA

- *Oihu hau* (D. Azurza)

BLOKEA 02: HERRI BERRI BATEN JAIOTZA

- *Bada herri bat* (I. Gonzalez) *Estreinaldia*

BLOKEA 03: JENTILEN KONDAIRA: ZUBIA ETA JENTILAK

- *Airea - Elementuen kantak* (E. Ugalde)

BLOKEA 04: OÑATI, JAKINTZAREN SOROA

- *Ate bat igaro ostean* (J. Guerrero) *Estreinaldia*

BLOKEA 05: ARANTZAZU: FEDEA ETA ARTEA GOIAN

- *Arantzazuko* (arr. J. Elberdin)

BLOKEA 06: GERRAK ETA KARLISTAK

- *Trostan* (I. Gonzalez) *Estreinaldia*

BLOKEA 07: OLABARRIETAKO ARGIA

- *Errota* (J. Guerrero)

BLOKEA 08: TXANTXIKUAK: BERDE HARRO

- *Zure boza* (X. Sarasola)

BLOKEA 09: LANTEGIAK, ALDAKETAK ETA AHOTSAK

- *Ontzaz ontza* (J. Guerrero) *Estreinaldia*

BLOKEA 10: OÑATI: HERRIAK BERAK KONTATZEN DUENA

- *Amorioa* (J. Elberdin)

BLOKEA 11: OÑATIK KANTUAN EGITEN DU

- *Oñati gure herria* (I. Gonzalez)

- *Oñati* (A. Ibarondo)

>> LITERATURA TXATALAK (XIV)

Manuel Umerez Goribargoitia (1757-1818). Bizitza eta obria (IV)

Testua: Roberto Altuna / Ilustraziñua: Jabier Erostarbe

SEME-ALABAAN HEZIKETIAZ



Ikusi degigun seme-alabaan heziketiaz Manuel Umerezek eskributako zenbait pasarte, bere idazkeriaren eta pentsakeriaren erakusgarri:

Necazari onac Arbolia, erneetan dan instantetic, darua bezaubagaz, guero bere demporan frutu onac emun deguion, quentzen deutsalala, dacarren, oquertasun eta bastago vizioso guztia, Arbolia bigun eta gaztechua dan bitartian; bein Arbolia andi eguin eta gogortu ezquero, leenago ausico lizateque, zuzendu baño: orobat bada zubec Guraso onac leguez emun biarco deustezube zeuben Umiai Jaungoicoaren vorondatiagaz conformeco bezu onac chiquitanic, bezubac artzeco capazac dirian bitartian, gueroco Juicioaren cuidadura guztiz itzi bagaric puntu delicadu au, Umiacaz Ume eguiten zariaila, eta Andiacaz Andi amorioagaz eta Prudenciagaz. (Osaba: 140)

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21

SIKAI DE AI TZARIAK • AI TZARI RIUSTIKOAK • NEIURRIRA ENPOTRATUIRIKO AI TZARIAK



JUANJE MARGOAK
627 818 247

Bezau gura badituzube zeuben Umiac zeuben obediencian eta Castidade guztizcuagaz, San Pablo Apostolubac diñuan moduban, apartau biarco dituzube Gaztiac alcarregaz eguin oi dituben jan, edan, eta francacheletatic, eta ez deustezube permitidu biar aficionau ditezen Ardao, Aguardiente, Mistela, edo beste onelaco Licoretara; (Osaba: 142)

Bestetik, hona hemen Belen Altunaren komentarixua beste gai honen gaiñian: *"Umerezen arabera 'iracurten icasi ezquero, beriala erretirau biarco dituzube Echera ala Semiact nola Alabac, eta ifini biarco dituzube bertatic Necazaritzaco Oficioan' (Osaba: 331). Maiorazkoari, agian, komeniko litzaioke idazten ere ikastea, baina, beste aldetik, buruhauste gutxiago izango du ikasten ez badu!" (izan ere, herriko Kontzejuan karguren bat izatea tokatu lekiok, eta hori baserrian lana egin behar duen batentzat eragozpena izan liteke).*

Baita ere Echeraco izango dan Semiact, escribitan zerbait icastia, alde batetic provechu dau, Echecho artu emunaren asientuba eruateco; baña ez jaquinagaz escribitan librauco lizateque Errico cargu pisubetatic, eta oneic Necazari ignorante bateri dacarden Buruco miñ eta Calte modu ascotatic; zeuc pensauco dozu, nire Illoba, zeñ onduen dan, zeure Semiaren eta Echiaren provehubari batere pasino bagaric beguiraturic. (Osaba: 332)

Eta honela segitten dau: *"Umerezen arabera, maiorazkoa nahiz beste seme-alabak baserri giroan atxiki behar dira beti, kalean dauden arrisku beldurgarrietatik urrun":*

Ez eguizube permitidu, zuben Umiac urten daguien Cale zaliac, zeuroc onetan ere emuten deustezubela egemplu ona: Caleco Echetan Guraso eta Ume aimbat entradaric guchien euqui biar dozube, batez ere zubenetic Calera daguan urtasunagaz. Ez dozube ere bialdu biarco onelaco Semia edo Semien faltan Alabia iñolaco pretestuz Erritic edo Echetico campora Erderaz edo Guizarteco barri icastera, edo (zubec esaten dozuben leguez) Habilidadiac artzera; au izan oi da zobelacuen artian Diabrubaren engaño manifiesto bat (Osaba: 323)

Umerezendako euskeriari eustia bihar-biharrezkua da dotriña ondo ikasi eta entenditoko:

Umiac, batez ere muticuac, icasi oi daube erderaz escolan beren Doctrina santuba; eta euscaldunac dirian leguez, ez daube comprenditan ezercho; icasten dauben pusquia daquie loruen modura; eta onela guertaquetan da onerian umiacaz amabi edo amalau urte cumplitia salvaitaco premia dan gara Doctrinaric ez daquiela. Ez, ez, ez dozube zubec izan biar aiñ ardurabagac zeuroen umiacaz puntu grave onetan. (Osaba, 166. or.)

Hiztegixa: *Bezu:* hábito, costumbre. *Bezau:* bezatu. **1.** ohitu (avezarse, acostumbrarse). **2.** hezi (domesticar, domar, educar). *Bezau, -a:* arba, zurkaitza (tutor). *Orobat:* era berian, beste hainbeste.

onerian umiacaz: honelako umeekin edo hauen moduko umeekin. Umerezek izenlagun honeik ebalten dittu: *onerian* 'honelako'; *orrerian* 'horrelako' eta *arerian* 'halako' esanguriarekin. Eta deklinau egitten dittu: *oneriare-nac, oneriarentzat...* *Salvaitaco premia dan gara:* salbaitteko premia dan beste/bezainbeste edo adina [aiña].

Itturixa: Belen Altunaren 'Euskaldun fededun' liburua, Jerardo Elortza eta Oxel Uribe-Etxebarriaren gainbegiratuarekin.



AGENDA

ERAKUSKETA

EKAINAREN 28ra ARTE

'LUX VITAE' (ALVAREZ DE EULATE)

Arantzazuko basilikako beirateak jarri zirela 70 urte betetzen dira aurten eta, hori dela eta, Xavier Alvarez de Eulate artistaren figura eta lana gogoratzeko erakusketa dago ikusgai basilikako klaustroan, larunbatetan (11:00-13:00) eta igandetan (11:00-14:00) Arantzazuko klaustroan.

HITZALDIK

EKAINAK 9 / 18:00-19:30

'LAGUNEKIN BAI! ADISKIDETASUN FEMINISTAK'

Hizlariak: Miren Guillo eta Marta Luxan.
Emakumion Etxia.

EKAINAK 10 / 19:00

'NOLA DANTZATZEN DA OÑATIN?'

Oñatiko dantza-sistemaren eta Gipuzkoako beste dantza-eskolen arteko harremana azalduko du Mikel Sarriegik. Gipuzkoako dantza-maisuen tradizioa eta Oñatiko dantza-praktiken berezitasunak azalduko dira, haien jatorria eta bilakaera ulertzeko gakoak eskainiz. Kultur etxean.

IKUSKIZUNA

EKAINAK 11 / 18:00

'JO!'

'JO!' ikuskizuna, Beatriz Elgezabal eta Anduriña Zurututzaren eskutik..
Emakumion Etxian.

IPUIN KONTAKETAK

EKAINAK 29 / 18:30

'RAYANAS'

Ipuin kontaketa eta elkarrizketa saioa Irene Reinaren eskutik. Santa Ana antzokian.

EKAINAK 30 / 18:30

'80 ABUELAS'

Ipuin kontaketa eta elkarrizketa saioa Dorleta Kortazarren eskutik. Goiko Benta ostatuan.

UZTAILAK 1 / 19:00

'GURE GALBAHETIK'

Ipuin kontaketa eta elkarrizketa saioa Dorleta Kortazarren eskutik. Lazarraga parkean.

KALE-ANTZERKIA / EKAINAK 6, FORUEN PLAZAN, 17:30

'Alonso, ezinezko mandatuen mezularia eta galdutako gutuna'

Hortzmuga konpainiaren eskutik, haur eta gaztetxoei zuzendutako ikuskizuna. Alonso, *Ultra Express* bidalketa-zerbitzuko banatzaierik gogotsuena eta kaotikoena da. Bere ametsa Urrezko Mezulari bihurtzea da eta hori lortzeko Aneren eta publikoaren ezinbesteko laguntza beharko du. Umorea, ezustea eta parte-hartzea dira familia osoarentzat sortutako ikuskizun honen ardatz nagusiak. (Euria egiten badu, merkatu plazan).



Oñatiko Jai Batzordean parte hartzeko deialdia

Udaleko Kultura sailak deituta, San Migel eta Errosarixo jaixak antolatzeko bilera irekia egingo da eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertan parte hartzera eta proposamenak aurkeztera.

EKAINAK 9, ASTEARTEA, KULTUR ETXEAN, 18:30

RR_6_erre (AH) ala

Hitzen performantzea,
Maialen Lujanbioren eskutik

Aixotu euskara taldeak antolatuta, Maialen Lujanbioren RR errezitaldi poetiko-bertso-performatibo-irakurri ikus-entzutekoaz gozatzeko aukera izango dugu ekainaren 19an, Antixena gaztetxean, 22:00etan. RR emanaldiak legoia du lehengaia, eta hura oretzen eta maneiatzen du forma desberdinetan Lujanbiok, garaiko gaiez jarduteko. Sarrerak, 8€/3€ (ikasle & langabetuak), ekitaldia hasi aurretik Gaztetxean bertan.



UZTAILAK 1 / 19:30

'LA ESPADA BAJO LA ALMOHADA'

Ipuin kontaketa eta elkarrizketa saioa Diego Reinfeldten eskutik. Goiko Benta.

MUSIKA

EKAINAK 14 / 19:00

'UDAN KANTARI'

Ganbara Kantu Eskolaren ikasturte amaierako kontzertua. Santa Ana.

EKAINAK 26 / 22:30

'OÑATI GURE HERRIA'

Ganbara eta Hots abesbatzen kontzertua

Oñatiko historia ardatz hartuta. Torre Zmeltzegei hotelaren kanpoaldean

ZIRKOA

MAIATZAK 5 ETA 6

GURE ZIRKUA

Gure Zirkuak azken hiru emanaldiak eskainiko ditu Oñatin, ekainaren 5ean (19:00) eta ekainaren 6an (12:00 eta 17:00). Ekainaren 6ko 12etako emanaldirako badaude online bidezko sarrerak. Dena den, gogoratu, emanaldi guztietan 30 bat sarrera jartzen dituztela salgai takillan.

OLARAKO JAIXAK

EKAINAK 12 - EGUBAKOITZA

19:00 Jaien hasiera: Trikitilari, erraldoi eta txorimaloen kalejira. **19:30** Euskal hamburgesak; **21:00** Kontzertuak (*Espal-oi!*, *Yakkovlev 42*, *The lio* eta *Hell Beer Boys*). **Ondoren:** DJ *Oztopo*, *Nagusi* & *Kalamar*.

EKAINAK 13 - ZAPATUA

10:30 Haurrentzako tailerak Natur Eskolan; **11:30** Liargarate Trikitizale taldearen kontzertua eta kalejira; **12:00** Haurren mendi bizikleta irteera; **14:30** Auzo bazkaria eta ondoren bingoa; **18:00** Trikitilari, erraldoi eta txorimaloak; **18:30** Talogileak eta *Naizena* erromeria; **22:30** Tapia eta Leturia. **Ondoren** *Triple* txapelketa; **Ondoren** DJ *Japo*, *Banaine* & *Kapelas*

EKAINAK 14 - DOMEKIA

10:30 Serigrafia tailerra eta haur jolasak; **11:00** Auzoko hildakoen aldeko meza; **12:00** Euskal parrillada; **13:00** Herri kirol erakustaldia Andartoren eskutik; **16:30** Mus txapelketa; **17:00** Oñatz taldeko gaztetxoan dantzaldia; **Ondoren** Txorimaloekin photocall-a; **19:30** Bertso saioa: Urko Arregi, Urko Egaña, Maider Arregi eta Gontzal Labetegi.

ZUBILLAGAKO JAIXAK

EKAINAK 26 - EGUBAKOITZA

18:00 Pello basurdearen jaitsiera, txorimalo eta trikitilariak eta Euskal Taloak **18:45** Neska eta mutilen pala txapelketako finalak **23:00** Kontzertuak (*T.A.K.E. eta Sutargi erromeria*). **Ondoren:** Bingoa eta DJ *Izura*

EKAINAK 27 - ZAPATUA

09:00 Mendi marxa; **17:00** Mus txapelketa; **17:00** Suhiltzaileen parkean puzgarriak, apar-festa, toka txapelketa eta txokolate jana. **18:00** Txorimaloak, Lezoko erraldoi eta dultzaineroekin; **20:00** Disko festa Javi Sound-ekin; **20:30** Barbakoa eta mozorro lehiaketa. **00:30** Musika txosnan, *'Fiesta de los 90'*

EKAINAK 28 - DOMEKIA

10:45 Meza; **11:30** Luntxa auzoko jubilatuentzat. Ondoren, dantzariak, omenaldia eta zozketa auzko jubilatuentzat; **12:45** Gaztetxoan pilota txapelketako finalak (J.M. Usatorre Memoriala); **14:30** Auzo bazkaria Sarayola; **17:00** Zinta karrera; **18:30** Helduen toka txapelketa.

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

EKAINAK 5 - 8

ZINE KLUBA:


-

NAGUSIAK:

COREDORA

GAZTETXOAK:

-



EKAINAK 12 - 15

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

CADA DIA NACE UN LISTO

GAZTETXOAK:

-



EKAINAK 19 - 22

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

PIONERAS: SOLO QUERÍAN JUGAR

(*) Benetako gertaeratan oinarritua.

GAZTETXOAK:

-



EKAINAK 26 - 29

ZINE KLUBA:

-

NAGUSIAK:

EL DÍA DE LA REVELACIÓN

GAZTETXOAK:

-



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Ekainak 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28.
Uztailak 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22
Ekainak 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30. Uztailak 8 eta 9.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58
Ekainak 3, 4, 12, 13, 14, 22 eta 23.
Uztailak 1 eta 2.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Ekainak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25.
Uztailak 3, 4 eta 5.

ODOL ATERALDIA

EKAINAK 19 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

ETXEA ALOKAGAI ONATIN

Etxebizitza alokairuan ematen da San Martin auzoan. Sukaldea, egongela, 2 logela, bainua eta trastelekua. Garaje itxia alokagai, aukeran. Deitu: 685 712 295

BULEGOA ALOKATZEN DA

Euskadi etorbidean, 18m². Deitu: 622 776 409

GARAJE ITXIA ALOKAGAI

Garaje itxia alokairuan ematen da Arantzazuko Ama kalean. 630152329

GARAJEA SALGAI Makalengan garajea salgai (18.000€). 629422190

LANERAKO PREST Emakume arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko, edota adineko pertsonen konpainia egiteko prest. 695738795

MERKATU TXIKIA

kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



Naturatik datorren berrikuntza.